



- **Jon Maia** «Herri batek ezinbestekoa duen azpiegitura bakarra identitatea da»
- **Emakumeak zientzian** Oztopoz eta debekuz betetako historia
- **Xabier Montoia** «Ahaztua nuen popak izan dezakeen alde xarmagarri hori»
- **ETA Katalunian** Independentisten lilura zena zama bihurtu zen
- **Francisco Fernández Rey**, dialektologoa «Euskaltzaindiak ez bezala, galegoaren akademiak ez du sosik jaso izan estatuaren aurrekontutik»

Etxetik kaleratuak

Ito arte estutzen ditu bankuak





ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure!
artean!
euskaraz



BIZKAIA
BIZIA



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko abenduaren 4a, 2.301. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Gari:** «Promozioa? Beti izan naiz desastre bat eta nire asmoa are desastre handiagoa izatea da». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Etiket kaleratuak.** Bankuen negoziazio borondatearen menpe. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 5

Pertsonaia

- **Jon Maia:** «Euskal Herria egitetik Euskal Herria izatera pasatzeko garaia da». SUSTRAI COLINA / 12

Gaiak

- **Emakume zientzialariak historian.** Itzaleko bidea. ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 18

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Inbertsio fondoak aukeran. BEÑAT SARASOLA / 22
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 23
- **Arrisku Handiko Tartak.** IÑAKI BARCENA / 24
- **Txandan** 34 milimetro. IGOR ESTANKONA / 24
- **Zer gau goxoa!** XIPRI ARBELBIDE / 25
- **Hiruko txikian** Hauteskunde. JOXEMARI OSTOLAZA / 25
- **Bertso berriak** Zundaketei jarriak. XABI PAYA / 26

Erdiko kaiera

- **Xabier Montoia:** «Nik nahiko nuke dena modu naturalean egin, baina ezin da». BEÑAT SARASOLA / 27
- **Eztabaida.** Euskadi Sarietako lokatzetatik, ondorio batzuk. GORKA BEREZIARTUA / 32
- **Bertsolaritza.** Errimen jolasa belaunaldi batetik bestera. AMAIA UGALDE / 34
- **Liburuak** A. GALARRAGA / 36
- **Diskoak** I. BARANDIARAN / 37
- **Ezpalak** JON TORNER / 38
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 39
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 40
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 42
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 43
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 44

Termometroa

- **ETAren amaiera.** Euskadi ta Katalunia. ÀLEX MILIAN / 45
- **MCCren ildo berriak.** Lehiakortasuna eta izaera kooperatiboa xede. DANIEL UDALAITZ / 48
- **Francisco Fernández Rey, dialektologoa.** «Galego bakarria egin genuen, leku guztietakoa, eta inongoa ez». MIEL A. ELUSTONDO / 50
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 54
- **Net Hurbil** Gardasil-Cervarix: neskatoei eztabaida zor zaie. PELLO ZUBIRIA / 56

Azkena

- **Euroa;** irabazleak eta herritarrok. B. BAKAIKOA AZURMENDI / 58



“Promozioa? Beti izan naiz desastre bat eta nire asmoa are desastre handiagoa izatea da”

Gari I Abeslari mitiko ohia

Eguzki berritan dago.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Ez dira betiko garai onenak, salda bukatu da... Eta orain zer?

Krisiari esker berriro gaude bizirik. Akabo aburgesamendu orokorra. Hemen denak izan gara burgesak, eskuinekoak eta ezkerrekoak, artistak eta ez-artistak... Pelikula honek suspensea behar zuen, eta orain espabilatzea tokatzen da.

Ez zara esaten hasiko disko batentzat hoge euro dirutza dela, ezta?

Jakinal! Digitala merkeagoa izan arren, binilotik digitalerako saltoan prezioak bikoiztu egin ziren industriak patrikak betetzea erabaki zuelako. Baina galdera da: diskoak merkeagoak balira jendeak erosiko lituzke?

Zureak bai... Zu Gari mitikoa zara, garai mitiko bateko banda mitiko baten abeslari mitikoa.

Ni ez naiz hura. Iraganera begiratzeak ez dit indarrik ematen, ez dit interesik pizten. Nahiago dut beste ilusio batzuk bizi, beste bide batzuk urratu. Ez daukat gaurkotasuna besterik.

Ez al daude ba talde jainkotuen itzulerak modan?

Iragana eta hildakoak hilda daude. Hertzainak-en despedidako kontzertuen aurreko *bolo*-etara ez zen jendetzarik biltzen. Ez gaitzen engaina, taldearen oihartzunak pisu gehiago dauka orain orduan baino.

Hori promozio kanpaina on batekin berehala konpontzen da!

Promozioa? Beti izan naiz desastre bat eta nire asmoa are desastre handiagoa izatea da.

Desastreek onarpen sozial izugarria dute gurean.

Orain rockak prestigio soziala ematen du, BBK Live-n egon zarela esatea gizartean kokatzeko modu bihurtu da. Hori bai, rockaren instituzionalizazioak ez du errealitatea aldatu. Makro-jaialdiak espejismoak dira, moda pasarelak.

Esperantzara kondenatuak egon arren Euskadin rock and rollak ez duela inoiz dirurik emanen, alegia.

Ibilbide artistiko bat fondoko lasterketa bat da, eta zorionez, aspaldi isildu ziren sirenen kantauak. Garrantzitsuena nortasun propioko proiektu bereziak sortzeko gai garela da. Hortik aurrera, oihartzuna, erantzuna, medioak... Noren eskuetan gaude?

Kazetariei izugarri gustatzen zaie beraien esku zaudetela sinestea.

Egunkarietan ez dut musikarik ikusten, ez dago kritikarik. Tira, ez diozue kritika esango promozio orria hartu eta pare bat ideia txertatzeari, ezta?

Kontuz, e, erdaraz kantatzeagatik epelak bota zizkizuten eta!

Zer dira hizkuntzak? Erremintak. Zertarako dira? Elkarrekin kodeak adosteko, komunikatzeko. Zer gertatzen da? Nik oso garbi daukadala zer naizen baina hizkuntza bati modu interesatuan atxiki nahi zaizkion ideologiak ez datozeela bat nirekin. ■



Etiket kaleratuak

Bankuen negozioiazio borondatearen menpe

Hipoteka ordaintzeko arazoak hasten direnetik, zein urrats emango ditu bankuak eta zein alternatiba ditu norberak, etiket kaleratua izan baino lehen? Legeak konponbiderako bideak eskaintzen ditu, baina bankuak du azken hitza, bere esku dago negoziatzeari, eta sarri ez du horretarako asmorik. Bankua beti da garaile.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

2011KO LEHENENGO SEI HILABETEETAN, 1.379 pertsona edo familia kaleratu zituzten etiketik Hego Euskal Herrian, hots, batez beste egunero ia zortzi. Nola iritsi gara egoera latz honetara? Espainiako Estatuan, Aznarren Gobernuak liberatutako Lurzoruaren

Legeak bide eman zion etxebizitzak eraikitzearen boom kontrolgabeari. Lurren deskalkifikazioan oinarritutako politika urbanistikoak edozein lekutan eraikitzea ahalbidetu du urteetan, aise eta azkar. Eta zereginetan, sektore ugariaren laguntza izan dute politikariek: erai-

Joan den urriaren 31n etiketik bota zutenetik, Gloria Rodriguez 36 urteko gasteiztarra (irudian, ezkerrean) amaren etxera joan da bizitzera, 5 eta 10 urteko bi seme-alabekin.



ALEX LARRETXI



kitzaileek erruz altxatu dituzte etxebizitzak, bankuek errazegi banatu dituzte kredituak –sarri maileguak itzultzeko ahalmena kontuan hartu gabe– eta notarioek, tasatzaileek, gestoreek, jabetzaren erregistratzaileek... parte hartu dute jokoan.

Eta guk? Zein neurritan probestu dugu tes-tuingurua gure baliabide ekonomikoez gaindi bizitzeko? Badaude halako salbuespenak, baina orokorrean kontsumitzaileak kaltetuenak izan garelara azpimarratu du Lucia Fernandezek. Adicae Banku, Kutxa eta Aseguru Erabiltzaileen Elkarteko kide da Fernandez, eta oker bakarra leporatu die kontsumitzaileei: kultura finantzariorik ez izatea. “Gutxienez, krisiak balio dezala jendea jabetzeko garrantzitsua dela ondo irakurri gabeko kontratuak ez sinatzea, gure kontu finantzarioen egoeraz gehiago arduratzea –komisio eta intere-sengatik zenbat kobratzen digu-ten...–, ulertzen ez dugun gaietan aholkulariak bilatzea”. Kultura finantzario ezak –eta maile-gu-emaile pribatu baten jokaera zalantzaga-riak– eragin zuen Bergarako Kukullaga Goi-koa baserriaren afera sonatua, eta kontratuen letra txikia ez irakurtzeak bultzatu du baita ere, besteak beste, Gloria Rodriguez gasteiztarraren kaleratzea –ikus! azken orriko koadroa–.

Prozesua, pausoz pauso

Hipoteka-maileguaren kuota ordaindu gabe-ko hirugarren edo laugarren hilean, gure

Adicae elkarteko Lucia Fernandezek kultura finantzariorik ez izatea leporatu dio kontsumitzaileari. “Gutxienez, krisiak balio dezala jendeak ondo irakurri gabeko kontratuak sinatu ez ditzan”

aurrezki kutxaren edo bankuaren sukurtsalak zentralera bidaliko luke espediente hori, eta teoriar, arrisku sailak gure ekonomia eta lan egoera ikertu ostean, arazoa konpondu bal-din badaiteke negoziatzea proposatuko ligu-ke. Praktikan ordea, gehienetan ez da hala gertatzen, Lucia Fernandezek azaldu digu-nez: zuzenean sail juridikora bidaltzen dute espedientea eta bide judiziala abiatzen da. Halako batean –6-9 hilabete ere pasa daitez-ke– eskutitza iritsiko zaigu, ordaintzeko eska-
tuz: ordaindu ez ditugun kuota

guztien batura eta atzerapen interesak eskatuko dizkigu, edo bestela, horri mailegu guztia gehituko dio. Bi kasuetan, oso zaila da zorrari 20 bat eguneko epean aurre egitea, atzerapen interesek asko puztu dutelako kopurua. Interesok %20-25 artekoak izan daitezke, ordain-du gabeko kuota bakoitza izu-garri garestituz. Horri guztiari

prozesu-kostuak gehitu behar zaizkio, horiek ere bezeroak hartzen baititu bere gain, sina-tzen dugun hipoteka kontratuan dagoen Erantzukizun Hipotekarioa atalean.

Puntu horretan, martxan da exekuzio hipotekarioa, alegia, bankuak bukatutzat eman du mailegu kontratua eta etxearen jabe egin da. Edozein unetan exekuzioa gelditze-ko aukera ematen du legeak, bankuak eska-tzen diguna ez, zor duguna (ordaindu gabeko kuota eta atzerapen interesak) kitatuz gero, baina esan bezala ez da erraza hainbeste diru



UNAI BREA

Stop Desahucios, Hipotekak Kaltetutako Plataforma (PAH), M15 mugimendua, Adicae... elkarten mobilizazioek ageriko egin dute milaka familiaren drama. Ezkerreko argazkian, Orkoiengo bizilagun baten kaleratzea geratzeko elkarretaratzea, uztailen. Goian, Berangoko Kukullaga Goikoa baserriko familia bota ez zezaten irailean egindako mobilizazioa.

biltzea. Normalean aurrera jarraitzen du prozesuak, geroz eta kiribilduago, eta azkenerako etxebizitza enkantean jartzen du bankuak: tasatu eta prezio horretan ateratzen da enkantean, baina inork ez badu %100a ordaintzen, salneurria jaisten doa %60ra arte —duela gutxira arte %50era jaitsi zitekeen tasazio balioarekiko prezioa—. Kontua da, Lucia Fernandezek nabarmendu duenez, enkantean abiapuntutzat hartzen den tasazio balioa bera baxuagoa dela erosi zenean baino: “Etxebizitzaren boomaren garaian tasatzaileek balioa igotzeko joera zutelako. Ondorioz, gainera %60agatik saltzen bada, zor handia geratuko zaio oraindik etxea galdu duenari: maileguaren zati bat, atzerapen interesak, prozesuaren

kostuak... Aldiz, bankuak irabazi besterik ez du egin denbora guztian: demagun bost urtetan hileroko ordaindu dugula hipoteka, batez ere interesetan, horrekin dirua irabazi du; ordaintzeko falta zaigunaren truke, diru oso gutxigatik, etxearen jabe egin da, eta saltzearekin berriz irabazi du. Eta gainera, zorrak kobratu nahi dizkigu. Negozio borobila da bankuarentzat”. Baita beste hainbatentzat ere, Fotocasa webgunearen iragarkian irakurri daitekeenez: “Enbargatutako etxebizitzak: aukera paregabea merkatuan balio dutena baino askoz gutxiagotatik etxebizitza eskuratzeke”.

Etxebizitzarik eta hipotekarik gabe, baina hipotekatuta jarraituko dugu oraindik, ban-



Gloria Rodriguez, etiketik kaleratua

“Ikusten denez bankuak epaileak baino botere handiagoa du”

“Bankutik e-posta bidali zidaten, mesedez etxea uzten nuenean argindarraren eta uraren baja eman nezala adieraziz, ez zutelako gasturik nahi. Moduek ere min ematen dute, jarrera hotz horrek, berdin izan zaielako bi ume etxerik gabe geratzea. Azken finean, nik ez dut zorrik eragin, senar ohiak utzi zion hipotekaren bere zatia ordaintzeari, baina mailegu solidarioa delakoagatik niri eskatu dizkirate atzerapen interesak, gainezka egin dut eta etxea utzi behar izan dut, bestela bankuak nire amaren kontra egingo zuelako, bera baikeuen abal moduan”. Bankuak enkantean saldu duen etiketik pasa den urriaren 31n kaleratu zuten Gloria Rodriguez gasteiztarra, eta 22.000 euroko zorra ordaindu behar du oraindik. “Ez dut laguntza sozialik jaso, lanean nago-elako, eta amaren eta aitatzaikoaren etxean gaude orain; ondo eramaten gara, baina bat-batean bost pertsona sartu gara 60 metro koadroko etxean eta logela berean moldatzen gara seme-alabak eta hirurok: 5 urteko semeak festa giroan bizi du, 10 urteko alabak ez du gustuko, baina luzerako daukagu, zor guztia ordaindu arte ezin baitut alokairuan ere pentsatu, eta zorioneko gara, familiaren aterpea aurkitu dugulako, bestela ez dut imajinatu ere egin nahi... Mailegua bost urtetan ordaindu nahiko nuke, ordurako alabak 15 izango dituelako eta bere espazioa beharko du, baina nik 41 urte izango ditut eta beste hipoteka batean sartuko al naiz? Beltz ikusten dut etorkizuna”.

2004-2005ean erosi zuten etxea senarrak eta biek, 2007an dibortziatu eta epaileak agindu zuen bakoitzak hipotekaren erdia ordaintzen jarraitu behar zuela. Gloria geratu zen etxean bizitzen, seme-alabekin. Gutxira, senar ohiak ordaintzeari utzi zion, irabazten zuen baino

gutxiago kobratzen zuela deklaratu eta kaudimengabetzat jo zuen bere burua. Beraz, zorra sortu zen eta nahiz eta hasiera batean Rodriguezek alokairuan bizitzearen truke hilero 511 euro ordaintzeko akordioa lortu bankuarekin, horrez gain zorra eskatu diote ondoren: beste 19.000 euro. 1.300 euroko soldatarekin, hilero alokairuko 511 euro eta maileguko beste 535 ordaintzea ezinezkoa zaio gasteiztarari. “Nik soluzioak proposatu dizkiet, baina ez dute ezer jakin nahi izan, ez dut utzi hilabete bakar bat ordaindu gabe eta ez nuen ordaintzeari uzteko asmorik, baina etekin handiagoa ateratzen dute ni kaleratuz. Ikusten denez bankuak epaileak baino botere handiagoa dauka, epaileak esan zuelako erdia eta erdia ordaindu behar genuela, eta bankuak esan dit ez dutela erdien konturik ulertzen. Ez da bidezkoa, senar ohiak eragin du zorra, baina nahi dutenari eskatzen dio bankuak, kalean zein uzten duten kontuan hartu gabe”.



ALEX LARRETXI

kuarekin zorrak kitatu arte. Ordaindu ezean, enbargora joko du bankuak: soldatatik zuzenean kenduko digute, soldataren arabera %30-50 artean, langabezian egonez gero nomina izan arte itxarongo lukete eta ondusun higigarriak ere har ditzakete (autoa, bitxiak...).

Hiru alternatiba nagusi

Hipoteka-maileguaren kontratua alokairu kontratu bihurtzea da arazo ekonomikoak dituenarentzako irtenbideetako bat: hipoteka baino gutxiago ordainduko luke eta bost bat urtez irauten du. Ondoren, berriz hipoteka bihurtuko litzateke kontratua eta alokairuan ordaindutakoa amortizatuko luke —hau da, hipotekari kenduko litzaioke diru hori—.

Okerrago daudenentzat aldarrikatzen den beste soluzio bat ordainean ematea da: etxea, zorraren ordainetan. Etxeko giltzak bankuari ematearekin bat, etxea tasatu eta tasazio

horrek zorraren %100a berdinduko luke, bankuak bere gain hartuz ordaintzeke dagoen kapital guztia. Hala, etiketik kaleratuak gutxienez ez luke dirua ordaintzen jarraitu beharko. Frantziako Estatuan eta beraz Ipar Euskal Herrian erabiltzen da formula hori, baina Hegoaldean ez, Espainiako kode zibilean ordainean ematea agertzen den arren, hipoteka kontratuetan eta ondorengo negoziazioetan ez dutelako halakorik onartzen bankuek.

Azken aukera moratoria hipotekarioa litzateke, jendea kale gorrian ez uzteko alternatiba gisa. Espainiako Gobernuak onar dezan Adicae elkarteak prestatu duen dekretuaren arabera, hiru urteko epean arazoak dituztenek hipotekaren kuota ez ordaintzea da proposamena, bakoitzaren ahalmen ekonomikoa aintzat hartuta hainbat aukera landuz: ez ezer ordaintzea, interesak baino ez ordaintzea, edo kapitala baino ez ordaintzea.

Behin hiru urte horiek pasata –luza litezkeen familiaren egoeraren arabera–, aurreko kontratura bueltatuko litzateke bezeroa. Hiru urte horietan ordaindu ez diren interesak Espainiako Gobernuak jarriko lituzke, Fernandezek gogoratu baitu hipotekak luzatzeko 6.000 euroko aurrekontua onartu zuela Gobernuak, baina diru hori ez dela apenas erabili. Ipar Euskal Herrian, antzeko formula darabilte jada: exekuzio hipotekarioa martxan den unetik, epaileak bankua eta bezeroa dei ditzake eta azken horrek duen ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta, exekuzioa bertan behera utz dezake, egoera hobetu arte.

Kontuak kontu, bankuek gehienetan negoziatzeari uko egiten diotela dio Adicaeko kideak, bezeroari tratatu despotikoa emanez eta haren telefono deiei edo aurrez aurreko eskaerei muzin eginez. Akordioa zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta zorpetuago dago bezeroa, auzia korapilatuz. Zergatik ez negoziatu, ordea, bankuak dirua nahi badu, ez etxea? “Ziurrenik goitik datozkien aginduak direlako. Banku eta kutxak urduri daude krisiaren testuinguruarekin, gogortzen ari dira beraiekin edozein kontratu sinatzeko baldintzak eta bezeroa estutzea ondo etor liezaieke, zorra modu azkarragoan berreskuratu badezakete”. Kontrakoa adierazi digu Euskadiko Kutxako Komunikazio arduradun Juan Cidek: “Gurean, hipotekaren luzapenak edo bestelako alternatibak negoziatzaren ditugu, bakoitzaren zailtasunak kontuan hartuz, batez ere garaiotan. Jendeak bere etxea utzi behar ez izatea da helburu nagusia. Dena den, apenas izan dugun kaleratze kasurik gure kutxan, Gipuzkoan bakarra, eta izan da aurpegi latza duen gizon batek adarra jo digulako”.

Ezikusiarena egiten du legeak

Pertsona bat bere etiketik botatzea saihesteko neurriak hartu behar direla dio legeak, baina praktikan bankuarekin sinaturiko kontratua dago horren gaitetik, eta erakunde finantzarioak du azken erabakia. Lucia Fernandez aburuz, kontua ez da legea bankuen alde ote dagoen, baizik eta ez duela kontsumitzailea babesten. Ez hori bakarrik, legeak gutxi babesten du kontsumitzailea, baina gutxi hori ere ez da bete: “Gehiegizko askatasuna egon da: ez gobernua, ez botere publikoak, ez Espainiako eta Frantziako Bankua –banku eta kutxen ikuskari nugu-

siak– ez dira arduratu legea betetzen dela ziurtatzeaz. Bankuak gure ezjakintasun ekonomikoz aprobetxatu dira eta ezikasiarena egin dute hori kontrolatu behar zutenek”. Adibidez, Hego Euskal Herrian tasazioaren %80ra arte mailegatu daiteke etxea, baina %100 mailegatu izan dute bankuek, baita %120 ere. Berdin arrisku kontrolarekin: kreditua eman aurretik arrisku ebaluazioak egin behar ditu bankuak, eta dirua itzultzeko ahalmenaren arrisku mailak %40a gailentzen duenean, ez litzateke hipotekarik eskaini behar, baina egin da hala ere. “Oso balio altuko maileguak eman dira, 30 urtetan ordaintzeko zailak”.

Akordioa zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta zorpetuago dago bezeroa. Soluzioa izan daiteke hipoteka-maileguaren kontratua alokairu kontratu bihurtzea, etxea bankuari ematearekin zor guztia kitatzea edo norberaren egoera hobetu arte hipoteka ez ordaintzea

Familien eta enpresa txikien gainzorpetzea erregulatuko duen legea ere aldarrikatu du hainbatek, Demokraziaren Aldeko Epaileek tartean. Gainzorpetzeari buruzko ikerketak eginak ditu Adicaek, bizirauteko familia batek behar duen gutxiengoan oinarrituta, eta Espainiako Gobernuari lege proposamena helarazi zioten bere garaian, baina ondo hartu bazuen ere, gerora Gobernuak ez zien jaramonik egin. Finean, etsituta dago Lucia Fernandez

politikarien jarrerarekin: Patxi López lehen-dakariak eta Juan Luis Ibarra Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek familiaren eta bankuen artean bitartekari lanak egingo dituztela iragarri zuten duela gutxi, eta etiketik kalera- tzea saihesteko neurriak promestu ditu hainbat alderdik pasa berri diren hauteskundeetako kanpainan, baina hitz hutsak dira Fernandezentzat, botoak irabazteko egindako adierazpenak baino ez. “Alternatiba ugari jarri ditugu mahai gainean, baina inork ez ditu oraindik aplikatu. Hiru urte daramatzagu krisian, egunero geratzen da jendea kalean, eta orain, hauteskunde kanpainan, konturatu

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadrabus.com

dira zerbait egin beharra dagoela? Benetako borondaterik ez dagoen bitartean, egoera ez da aldatuko eta beldurgarria da aurreikusten dugun etorkizuna”. Neurriak alokairuko etxebizitzetan hartu ditu Espainiako Gobernuak, baina ez preseski maizterraren alde: ordaintzen ez duena etiketik errazago botatzeko “kaleratze express” delakoa ezarri dute azaroaren 1etik aurrera. Frantziako Estatuan oster, 1954ko lege bati esker debekatuta dago maizterrak neguan (azaroaren 31tik martxoaren 15era) pisutik kaleratzea, ordaindu ez arren.

30-50 urte arteko bikoteak, krisia etorri arte lan egoera egonkorra zutenak eta sarri seme-alabekin; negozioa gaizki joaten hasi zaienean maileguak ordaintzeko zailtasunak dituzten autonomoak; dena galdu duten enpresa txiki eta ertainak; etxea enkantean jarri dieten arte seme-alabei egoera ezkutatu dieten gurasoak; hizkuntza gehiegi kontrolatzen ez duten eta zer gertatzen ari den oso ondo ez dakiten etorkinak... Kasu gaitzak dira Adicæ elkartera iristen diren guztiak. Eta etiketik kaleratu ondoren dator okerre: ahal duenak familiaren babesean bilatzen du

aterpea, baina etorkinek izan ohi dute zailen, eta lagunen etxetara edo udal gizarte-zerbitzuetara jo behar izaten dute. Lucia Fernandez, hori da benetako drama: etxerik gabe geratu ostean, nora jo? Nola biziraun?

Sakoneko aldaketa

Egoerari aurre egiteko irtenbideak bilatu arren, sakonagoa behar du aldaketak. Etxebizitzaren politikak birpentsatu beharko dira, babes ofizialeko etxetara sartzeko baldintzak aztertu, alokairu soziala bultzatu, etxebizitza hutsak kontuan izan —eta horien kontrol fiskala eraman—, okupazioaren aukera aintzat hartu... Areago, jabe-

tzari eta oro har bizimodu ereduari buruz gogoetatzeko balio behar luke honek guztiak. “Etxebizitza izateko eskubidea lortzeko hipotekatu behar, hipoteka ordaintzeko lane-ko esplotazioa jasan behar... Kapitalismoaren interesei men egiteko ongi estudiatuta dagoen gorpila da hau!”, kexu dira Gure Ataria etxebizitza duinaren aldeko plataformako kideak, baina beste erreportaje baterako abiapuntua da hori. ■



Etxebizitzaren politikak birpentsatu behar dira, babes ofizialeko etxetara sartzeko baldintzak aztertu, alokairu soziala bultzatu, etxebizitza hutsak kontuan izan, okupazioaren aukera aintzat hartu...

AURTEN

EZ PIJAMA

EZ GALTZERDI

ASMATU OPARIAREKIN

urtean 20€

gaztezulo

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN.

MUSIKA, ZINEMA, SEXUA, INTERNET, KIROLA, LITERATURA, ARTE ESZENIKOAK, ARGAZKIGINTZA...

Tel.: 943 457 250

harpidetza@gaztezulo.com



EROSKI

Produktuak

urte **1**

TRANS* KOIPERIK GABE

***PARTZIALKI
HIDROGENATUTAKO
LANDARE
OLIOTIK
ERATORRIAK**



ZURE OSASUNAGATIK

Informazio gehiago hemen www.eroski.es

Hemen entzungo dizugu 902 540 340

Jarrai iezaguzu honakoetan



EROSKI

zurekin

Jon Maia

«Euskal Herria egitetik Euskal Herria izatera pasatzeko garaia da»

“Udaberria itzaldu aurretik erre dezagun negua”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Bertolt Brecht: “Gogoz kontra bere herria uzten duena ez da immigrantea, desterratua baizik”.

Begiak ireki zizkidan esaldia da. 25 urte izan arren, ordura arte ez nion sekula nire buruari galdetu zergatik utzi zuten euren herria nire aitona-amonek, nire gurasoek. Zergatik etorri ote ziren? Nola otu zitzairen *extremeña* eta zamorarrak bati euren seme-alabak ikastolan matrikultatzea, euskaldun askok euskal hezkuntza arautuari bizkarra ematen zioten garaian? Haiek ere maiteko zuten euren lurra, biziko zuten historia gogor bat. Nik halaberharrez Euskal Herria betiko laga beharko banu zauri orbanezina izango nuke. Esaldi hura irakurri arte, ordea, konplexuz betea nintzen. Tapatu egiten nituen nire abizenak, ez nuen nire gurasoak erdalduinak zirela eta amarekin gazteleraz mintzo nintzela inork jakiterik nahi, ez nuen bertso mundura horren berri iristerik nahi. Bertsolarien artean ere ez nuen nire ezpaleko inor ezagutzen, eta nahi ala ez, beti dago *mantxurriano*, *bezurbeltz*, *belarrimotz* bezalako hitzen eragin gutxieslea. Pentsa, hain nengoen konplexuz betea neuk ere erabili izan ditudala kontzeptu horiek. Esaldi horri esker eman nion egoerari buelta. Horri esker iritsi nintzen, 1997ko txapelketa nagusiko finaleko azken agurrean, nire familiak ni euskararen tenplu handi horretara bertsolari bezala iritsi nadin egin zuen ahalegin itzela eskertzeraz. Zor intimo bat kitatu nuen, eta gauzak zer diren, orduan jabetu nintzen jende askoren bizi-testigantza zela.

Riomundok ipurdi-bistan utzi zuen euskaldunon eta immigrazioaren arteko harremana.

Gai hori tratatzeko posizio pribilegiatu

batean nengoen. Obligaziotzat neukan etorri zirenen esperientzia bitala euskal munduari euskaraz kontatzea. Euskaldunen artean etorkinei buruz egon den ikuskera *mantxurriano*, *belarrimotz* hori desmitifikatu nahi nuen, bertako jendeak ikus zezan ez zela ezdeusa maite duzun lurra laga eta inguru arrotzera etortzea maletan kabitzen zaizunarekin soilik. Urte haiek berrirakurketa bat eskatzen dute. Orduko desastrearen ondorioak nozitzen ari gara oraindik. Erraza da “40 urte hemen eta ez dira integratu!” erretxintzea, baina nora goaz oraingo etorkinentzat ez badaukagu benetako integrazio politikarik? Oraingo senegaldar, aljeriar edo boliviarrak batek non dauka muturrerainoko integrazioa bermatuko dion ibilbidea? Ze integratzaile bide zeukaten diktadura militarrean galtzaile gisara trenetan etorri ziren haiek? Hala ere, pentsa, hemengo askok arrazoi eta motibo anitzengatik euren hizkuntza galdu zuen bitartean, etorkin horietako batzuk gure hizkuntzarako bidea

Nortasun agiria

1972an Urretxun sortu zen zumaiarra. Bertsolari, kantari, letragile, idazle eta zuzendaria. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken lau finaletan izan da, hiru disko utzi ditu Karidadeko Bentarekin, *Riomundo* idatzi zuen 2005ean, eta *Bidaia Intimoak* eta *Apaiac obeto*, azken bale ontziaren kondaira dokumentalak zuzendu ditu.





urratzen hasi ziren, eta ahaleginak eta bi egin zituzten euren ondorengo belaunaldia euskalduna izan zedin.

Ahalegina eta errekonozimendua ez datoz beti bat, alta.

Garai hartan herrien kanpoaldeetako txapuza arkitektral eta ghetto fisikoetara bizitzera etorri zirenak euskalduntasunetik kanpo geratu ziren nagusiki. Jende horrekiko sortu zen mesfidantza soziala ez zen arazo politikoa izan, nahiz eta orduan Espainiatik zetorren oro txartzat jotzea normala izan. Horren azpian klase arazo bat zegoen. Hemen aberatsak eta enpresa handien jabeak euskaldunak ziren, eta etorkinak berriz, fabrika horietan iganderaino egunero 15 orduz lana beltz egiten zuten peoi sakrifikuak. Gaur egunera etorrita, ez daukagu arazo politikorik Senegalekin edo Aljeriarekin baina zergatik begiratzeko diegu oker? Zergatik ez ditugu integratzeko? Suitzarra ez da etorkina, suitzarra da, baina zergatik da senegaldarra etorkina eta ez senegaldarra? Markoak oso desberdinak izan arren, klase arazo bat zegoen orduan, eta klase arazo bat dago gaur. Zein den konponbidea? Elkar ezagutzea. 40 urtez hemen bizi diren *mantxurriano* horiei galdetu diegu zer gerra pasa zuten, zergatik utzi zuten euren lurra, fusilaturik ote daukaten familian? Orain datozen etorkinei zeinek galdetu die zer gerratik datozen, etxean norbait hil ote dieten, bortxa ezagutzen duten, edo zer miseriatan bizi diren? Benetako integrazio politikak behar ditugu, batez ere guk, euskaldun eta abertzaleok. Gu gara gutxi, gu gara ahulak, eta euskal izaera eta identitateak at uzten ari gara uholde hori. Gu gara espabilatu behar dugunak, beraiek ez gaituzte behar.

Euskaldunok ere izan gara etorkin. Esaterako, Ternuara joaten ginen arrantzara. Zuek ere, Stevenson-en ipuin batean nola, hara abiatu zineten.

Karidadeko Bentarekin, herriz herri, *Partiada triste bat Ternuarat* kantatzen ari nintzela, ezagutzen ez nuen batek hots egin zidan balea-arrantzaleen gisan Ternuara nabigatzeko aukera eskainiz. Beothuk txalupa denboraren makina zela sentitu nuen, geografiaz harago denboran bidaiaitzen ari ginela. Magikoa da historia ukitu ahal izatea, zure azalean sentitzea, behinola zu bezala joango zirenen sentazioak zure haragitan bizitzea pentsamenduaren arkeologia egiteraino. Euskaldunok itsas historia handia daukagu, berreskurapen, normalizazio eta gizarteratze itzela eskatzen duen historia. Askok uste duenaren kontra, Euskal Herria ez da artzain herri, *rural* eta pobre bat izan. XVI. mendean oso herri abe-

ratsa, industrialia, teknologikoki aurreratua, eta munduarekin erabat konektatua ginen. Gero egon gara isolatuta eta miserian, baina Pasaia XVI. mendeko Cabo Cañaveral zen. Gure historia berridazteko behar handia dago, eta ez dago berridazterik itsasoa kontuan hartu gabe. Ez dago zer garen jakiterik itsasoa herri honentzat zer izan den jakin gabe. Gure izateari buruz dauzkagun hainbat klixe deseraiki behar ditugu. Gehiegitan egin dugu topo kontzientzia faltarekin. Zu 8.000ko bat igotzera zoaz eta dirua lortzeko protokolo ibilbide bat dago, baina Ternuako Ipar Atlantikoan 2.000 km. arraun egitera joateko laguntza eske atea jotzean, oporrak ordaintzea nahi duzun galdeetzen dizute. Zorionez, inurri lanean emergenteak garela jabetu gara, eta apurka-apurka, erakundeak ere itsasoak duen turismo kultural eta identitario potentzialaz ohartzen ari dira.

Gure identitate kulturala ere ez dago berreskuratze premian?

Suntsiketa txikitzaile batetik gatoz. Erraza da bonbardaketa fisiko bat bisualizatzea. Denek ezagutzen dugu Gernika bonbardatua, Elgeta xehatua, Durango birrindua, eta herriak eta etxeak berreraikitzea lortu dugu, baina munduari irekia bezain bere lurrean errotua zegoen euskal identitate aberats hori hamarkada luzetan iraunkorki eta etenik gabe bonbardatua izan da. Euskal kultura Gernika da. Gernika ez baita soilik herri bonbardatu bat eta 3.000 hildako. Gernika euskal identitatea da. Diktadura militar faxista baten pean iraun dugun identitate bat gara, baina zer berreraikitze fasetan dago gure kultura, gure Gernika bonbardatua? Fisikoki bai, garapen suntsitzaile bateraino berreraiki ditugu paisaiak, etxeak, errepideak, baina kultura? Identitatea? Nola zenbatu daitezke biktima kultura-

"Ez nuen nire gurasoak erdaldunak zirela eta amarekin gazteleraz mintzo nintzela inork jakiterik nahi, ez nuen bertso mundura horren berri iristerik nahi"

lak? Non dago euskararen normalizazioa? Zenbat jende gutxiagok erosten ditu euskal liburu eta diskoak Francoren garai amaigabe hartan euskaldunek izandako desprestigio, jazarpen, errepresio eta zigor fisikoaren erruz? Ez al dagokigu estatus erreferentzial bat gure lurrean? Gu ez ginen gutxiuak jaio, gutxitu egin gaituzte. Hortik abiatu behar dira aro berri honi lotutako gure politika berriak. Herri batek ezinbestekoa duen azpiegitura bakarra identitatea da, eta hori berreraiki gabe dago. Guk ez ditugu erabakitze eskubidea bezalako giza eskubide eta eskubide politikoak nahi Palentzia askatu bat izateko. Azken mendeko ibilera gatazkatsu hau antzua litzateke erabakitze eskubidea lortu eta Euskal Herria ez bagina. Horregatik, Euskal Herria egitetik Euskal Herria izatera pasat-

tzeko garaia da. Aro berria ez da helburua, helburua izatea da, eta ez dezagun ahaztu oraingoz euskal sortzaileak hondakinetan dagoen Gernikaren kale suntsituetan sortzen saiatzen ari garela.

Aro berrira garamatzen bide hori lehen lerrotik bizi izan duzu *Gazta zati bat* dokumentalaren grabaketari esker. Zer geratzen zaio historikoari intimoaren galbahetik pasata?

Hori kamera eskuan bizi ahal izatea izugarria izan da. ETAk borroka armatua bukatutzat ematen duenean, zure bizitza osoa biltzen duen garai bat bukatzen da, eta barne-begiradeta eramaten zaitu. Gatazkaren ondorio mingarriak, gatazka guztietan daudenak, hor daude oraindik, eta espainolek oso ondo dakite hori. Euren izango da munduan demokratikotzat jotzen den estatu batean oraindik epaitu gabeko diktadura bakarreneakoa. Baina tira, gatazka batean sartzen denak asumitzen du mina egon daitekeela, eta beste askok, min hori asumitu gabe ere,



16 Euskal Denda

EUKAL HERRIKO ARTISAUTZAREN AZOKA · FERIA DU SECTEUR ARTESANAL BASQUE · FERIA DEL SECTOR ARTESANAL VASCO*****

Nire tailerra, nire ogibidea, nire bizimodua

2011 Abenduak **3-8** Diciembre DURANGOKO AZOKA PLAZAN

- Erakustaldiak. Umeentzako tailerrak
- Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
- Sorpresa asko izan ditzakezu.

Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30 - 21:00
Sarrera: 1,20 €

GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA !!

www.euskaldenda.info






jasan behar izan dute. Hori denborak sendatuko du eta bakoitzak egingo du bere erre-latoa. Niri ez dit minik ematen beste batek osatu dezakeen kontakizunak, nik badaukat nirea. Gainera, gerra horiek ez doaz inora. Bakoitzak egin dezala berea, eta horrekin lasai geratzen bada, bakea. Umea nintzela harrika ibiltzen ginen eskola nazionalekoekin. *Man-txurrianoak* ziren eta gu *vasco-rrroak*. Orain eskola beraren atarian egiten dugu topo gure seme-alabak klasekideak dire-lako. Denborak mirariak egi-ten ditu.

Orain gutxi, Jose Mari Kortaren alarguna kalean askotan gurutzatu zenuela baina sekula ezin izan zeniola begietara begiratu kantatu zenuen. Aitor-tu eta uste gabeko zauri asko dago hemen.

Jakina hori ere badela nigan dagoen zauri bat. Funtsean, denagatik sufritzen duzu, minaren presentzia oso hurbi-la da, eta zer esanik ez betida-nik ezagutzen duzun eta inoiz gorrotorik eduki ez diozun pertsonari bizi izan duena bizitzea tokatzen zaionean. Hori ez da nire zauria baka-rrik, jende askorena da. Baina zaurian hazka egitea baino nahiago dut Zumaian biziki-detza normalizatua daukagula pentsatzea, bere momentuan betiko haustura sozial bat arrakalatu zela zirudien arren. Badakit ema-kume horren mina betiko dela, baina ezin dugu askoz gehiagora aspiratu. Kolektibo eta gizarte bezala biziberritu eta aurrera egitea dagokigu, bizitza ez delako geratzen, denbo-rak aitzina egiten duelako, eta zauriak denbo-rarekin ixten diren bezala, herri honen ari-man dauden minak ere sendatuko direlako. Kolektiboki, gizarte bezala, herri gisa, barka-menaren zentzuan doazen adierazpenak lagundu dezakete, baina bakoitzak bizi du bere min intimoa, eta bakoitzak jakingo du min hori nola kudeatu geratzen zaion bizitza zatian. Hortik aurrera etorriko dira belaunal-di berriak, guk ezagutu dugunarekin haziko ez direnak, eta eurek biziberrituko dute herri hau. Espero dudana da urtetan pilatu dugun elkartasunerako, lanerako eta norbere zilbo-rretik harago pentsatzeko gaitasuna eta balo-



BESTEEN AHOTAN

Igor Elortzak

“Sasoiko dabil Long. Gainditu du aldikada txarrik ere, eta planetak oro lerrokatu zaizkio azkenaldian. Pertsonalak eta kolektiboak. Egunerokoak eta betierekoak. Berezkoa du, gainera, une eta gune historikoan sentitzeko sena. Zuk gurago izan dezakezu kontu txikiekin bazkariak alegatzen dizkizun Jon, baina laster azaleratuko da amets handiez mintzo den Maia. Eszeptikoa bazara ere, aproban ipiniko zaitu, eta helduko da une historikoa: instant batez, dena sinetsiko duzu”.

reak transmitituko ditugula, hori delako etorkizuna eraiki-tzeko gure ondare eta giharra. Beste gizarte askok galduta daukatena inork baino gara-tuago daukagu, eta hori ezin genezake alferrik galdu gizarte eredu eta elkarbizitza berriak eraikitzeko orduan.

Autore bertsolaritza hainbeste aipatzen den garaiotan, autore bizitza da zurea?

Denok gara gure ibilbidearen emaitza. Ez digute deitzen ondo errimatzen dugulako, garena garelako baizik. Entzu-leak autorea nahi du. Nik ber-tsotan bizitzak eman didane-tik egiten dut, baina ez naiz bertsolaria bakarrik. Hainbes-te saltsa anitz eta desberdine-tan ibili banaiz naizen bezala-koa naizelako da, eta bizitzak armonia berean daudenak konektatzeko joera daukalako. Era berean, nire bizitzaren ezaugarriak bertsoari ematen saiatu naiz. 13-14 urterekin Aute, Serrat, Krahe, Milanes, Sabina edo Silvio Rodriguez entzuten ziren etxe batean bizi nintzen, eta 17rekin, plazaz plaza ibiltzen hasi nintzenean, Kortatu, Barricada, Hertzai-nak, La Polla eta abarrekin konektatu nuen nire belaunal-diko askok bezala. Bertsolaria nintzenez, eremu horretan

eragiten hasi nintzen, eta horri esker heldu nintzen Negu Gorriak eta giro horretako beste jende askorekin kolaboratzera. Orduan bakanak eta bakarrak ziren zitak izan arren, hortik dator orain herri gehienetan dugun publikoa, BECeko entzuleriaren zati handi bat, eta zorionez, orain inork ez du pentsa-tzen piercing-ak dauzkan, kanutoak erretzen dituen, edo rocka entzuten duen batek, ber-tso saio bat entzun ez dezakeenik. Horretara-ko ezinbestekoa da zure jendearekin eta ingu-ruarekin konektatzea, eta langintza horretan, asko laguntzen dit egiten dudan oro naizena-rekin ezaugarritzeak. Zure izatetik sortu behar duzu, ezin duzu pentsatzen ez duzun arrazoi bat kantatu oso ona delako soilik. Hori hala, bertsolariok zorte handia daukagu. Gure garaia- ren kronistak gara, eta begira zer garaitan bizi eta eragitea tokatu zaigun. ■




Lauetan erdizka!

Miguel Angel Sagaseta maixuaren eskutik

gure dantza ikasteko

Jauzien bilduma osoena!



LIBURUA + DVD

JAUZIAK

urratsak eta partiturak

GARA

abenduaren **3**an



+ 15,95€

Itzaleko bidea

Astronomia Emakume erakusketa ibiltariaren osagarri, emakumearen eta zientziaren arteko harremana aztertu du Paloma Alcalá fisikari madrildarrak Gonatan eta zientzian hitzaldian. Azaldu duenez, emakume ikasleen kopurua %54 bada ere, ikertzaileen bi heren gizonezkoak dira gaur egun Espainiako Estatuan. Nabaria da, oraindik ere, zientziaren munduari darion bazterkeria.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

FISIKARIA ETA FILOSOFOA izateaz gain, irakaslea ere bada Paloma Alcalá eta Gonatan eta Zientzian ekimena sortu zuen 1990eko hamarkadan, neskak zientzia arloko ikasketak egitera animatzeko asmoz. Hala, zientzietan aitzindari izan diren hainbat emakumeren biografiak abiapuntu hartuta, emakumeak zientzian aritzeko izandako arazoak eta horiei aurre egiteko erabilitako estrategiak aztertu ditu Alcalák.

Amelia Valcárcel filosofoaren ustez, lau dira jakinduria akademikora ailegatzeko emakumeek igo behar dituzten mailak: ikasteko aukera bermatzea da lehenengo urratsa; ondoren, lortutako tituluak gizonezkoenekin parekatzea; hirugarrena, ikasitako ogibidea garatzeko eskubidea izatea; eta azkena, elitean sartzea.

Lehenengo mailari dagokionez, Bepizkunde aroan emakumeak ikasteko bide bi zituela dio Alcalák. Batetik, aristokratek hautatu ohi zutena: nor bere kabuz eta tutoreek lagunduta ikastea; hori bai, aurretik argi utziz ikasitakoa sekula ez zutela lan egiteko erabiliko. Bestetik, gremioen egituraren oinarritutako bidea zegoen. Hori da, esaterako, Maria Winkelman astrologoak (1670-1720) hautatu zuena. Aitarekin egin zituen lehenengo ikasketak eta nekazaritzari lotutako egutegiak egiten zituen artisau batekin ikasten jarraitu zuen gero. Garai haietan, ez ziren gutxi artisau izateaz gain ikasketa akademikoak ere eginda zituzten astrologoak, Winkelmanen senar izango zena kasu, Gottfried Kirch.



Elizabeth Garrett (ezkerreko irudian paziente batekin, Britannica.com webguneko marrazki batean) Britainia Handiko lehen emakume medikua izan zen. 1918an, emakumeentzako medikuntza ikastetxea zabaldu zuen.

Eskuinean, Maria Mitchell, H. Dassel pintorearen irudi batean. AEBetako astrologo honek borroka egin zuen *seven sisters* izeneko emakumeentzako ikastetxeetako tituluak legezkoak izan zitezen.

Asko izan ziren emakumezko astrologoaren ikerketak: 1702an, kometa bat aurkitu zuen eta Berlingo Zientzia Akademiaren presidentea Leibnizek sutsuki defendatu zuen Winkelmanen lana. Baina Kirch hil zenean, astronomo-laguntzaile izendapena eskatu zuen eta Akademiak ezezko borobila eman zion, emakumea izateagatik. Ohiko moduan Prusiako gortearantzat egutegia egiten segitu zuen arren, areago, Krosigh baroiaren behatokiko maisu astronomo izan zen arren, Akademiak ez zuen inoiz aintzat hartu. Zientzia erakundeek ez zuten emakumerik nahi, dirudienez ospea ez galtzeko.

Ikasketetan bide bat zein bestea aukeratu, emakumeek ezin zuten akademiatan sartu. Aurreneko saiakerak XIX. mendekoak dira, emakumeak hiritar oso izateko helburuz sortu zen sufragismo mugimenduaren baitan (1850-1914).

Gizonezkoek zituzten eskubideak nahi zituzten, ikastea eta lan egitea, besteak beste. Akademia ilustratuek, bien bitartean, ohiko jarrerari eutsi zioten. Biologia eta Botanika karrera sortu berrietan zirrikitu bat zabaldu bazitzairen ere, erakundeek alboratuta zituzten

emakumeak. Izan ere, Alcaláren hitzetan medikuntzak berak argudioak eskaini zituen XIX. mendeko Europar bazterkeria mantentzeko: gizonarena ez bezala, emakumearen gorputza ama izateko baino ez zegoen presatuta.

AEBetan, ordea, kuakeroen gisako talde erlijiosoen bultzatuta agertu ziren emakumeentzako lehenengo *collegeak*, *Seven sisters* izenarekin ezagunak. Maria Mitchell (1818-1889) astrologoak irakasle jardun zuen horietako batean eta ikasleen etorkizunarekin kezkatuta, borroka egin zuen *Seven sisters* haietan lortutako tituluak legezkotzat izan zitezen eta emakume masa kritiko handi bat sor zedin.

Aldi berean, Europar eskubide berdinekin lortzeko azken urratsak ematen ari ziren sufragistak. Unibertsitatean sartzeko eskubidea XIX. mendearen azken laurdenean lortu zuten, adibidez

Sorbonan (1867an), Londresen (1877an) edota Cambridgen (1881ean). Haietako emakume sufragista bat zen Elizabeth Garrett (1836-1917). Bere historia garai haien paradigma dugu: unibertsitatean ikasterik ez zuela-eta, berak ordaindutako irakasleekin ikasi zuen,

Jakindurian parte hartzeko lau maila lortu behar ditu emakumeak: ikasteko aukera bermatzea, lortutako tituluak gizonezkoekin parekatzea, ikasitako ogibidea garatzeko eskubidea izatea, eta elitean sartzea



argia

Salgai dagoeneko!

EGURREZKO TAULA **50€**

EGUTEGIA **8,50€**

BURNIZKO EUSKARRIA **5€**

EGUTEGIA opari

argia

2012ko egutegia

- Eduki historikoak
- Landareei buruzko bitxikeriak
- Txisteak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

ESKAERAK

☎ 943 37 15 45

denda@argia.com

baina titulua lortzeko Frantziara joan behar izan zuen. Gogorra izan zen, baina Ingalaterrara bueltatu eta lortu zuen profesionalki aritzea: Britainia Handiko lehen emakume medikua izan zen. 1918an, emakumeentzako medikuntza ikastetxea zabaldu zuen, eta urte batzuk geroago bere izena hartu zuen zentroak: Emakumeentzako Elizabeth Garrett Ospitalea.



Hezkuntza eta diziplina berriak

XX. mendearen hasieran, lanean aritzeko bi ate zituzten irekita emakumeek: hezkuntza batetik, eta diziplina berriak bestetik. Bigarren talde horretan sartzen zen fisika nuklearra eta arlo horretan egin zuten beren bidea, adibidez, Marie Curie ezagunak eta Lisa Meitner-ek (1878-1968). Meitner-engan ondo islatzen da sasoiko joera. Max Planck eta Otto Hahn fisikariek egin zuten lan eta azkeneko horrekin elkarlanean nuklear fisioa aurkitu zuen. Haatik, Hahn naziari eman zioten Nobel saria 1944an, Meitner emakume judua alde batera utziz. Mundu osoan asko eta asko dira Lisa Meitner-en antzeko kasuak. Emakumeek egiten zuten lana gutxietsi da historian, ikusezin bihurtzeraino. Horretarako izen bat du Paloma Alcalá: estokoma. “Jakín badakigu neuronak badabiltzala, elkarri lotuak daudela, baina lantzean behin, huts egiten dute. Hori da eskotoma bat, eta zientziak ere bereak ditu. Norbaitek aurkikuntzaren bat egiten duenean, zientzia komunitatean dagoen adostasunari aurre hartzen badio, ez dio inork arretarik ipiniko. Emakumeekin gauza bera gertatzen da”.

Paloma Alcalá
Gonatan eta zientzia
hitzaldia ematen,
Bilbon, aurtengo
urrian.

**Medikuntzak berak argudioak
eskaini zituen XIX. mendeko
Europar bazterkeria mantentzeko:
emakumearen gorputza ama
izateko baino ez zegoen
prestatuta**

Espainiako Estatuan, 1910ean laga zieten emakumei unibertsitatean sartzen, eta hor ere, garatzear zeuden diziplinak eta hezkuntza zituzten lan merkaturako ate nagusiak. Garrantzitsua izan zen Maria de Maeztu bilbotarrak 1915ean eraiki zuen Andereñoentzako Erresidencia. Bertan, hiri nahiz herritako emakumeek ikasketako aukera izan zuten eta ondoren atzerrira joatera eta

goi mailako ikasketak egitera bultzatzen zituen Maeztuk. Isabel Torres (1905-1998) izan zen ikasle haietako bat. Valdecillan (Espainia) ipini zituen abian elikaduraren inguruko bere tesiak, hori bai, soldatarik gabe.

Emakumeek zabaldutako bideak gizonetakoek hartzen dituztela nabarmendu du Alcalá: “Diziplina berri bat profesional egiten denean, unibertsitatean sartzen denean, diziplina horrek emakumeak uxatzen dituela dirudi”. Gainera, ez dirudi gauzak hainbeste aldatu direnik zientzien mundu akademikoan eta Zientzia Erkundearen goi karguak gizonen eskuetan daude oraindik. “Hautaketa prozesuak ez daude irizpide akademikoetan oinarrituta, eta lanposturako egokien den pertsona aukeratzearen aitzakian, emakumeak baztertzeko dira”. Egungo egoerak ere kezkatzen du fisikari madrildarra, krisialdi ekonomikoa dela-eta lana aurkitzeari uko egiten dioten %90 emakumeak direla baitio. “Ikasketako aukerarik ez izatea ez da okerre, baizik eta emakumei sinestaraztea beren buruari mugak ipini behar dizkiotela”. ■



DURANGOKO AZOKA 2011

**HARPIDETZA
ESKAINITZA
BEREZIA**

HARPIDETZA

**%50
GUTXIAGO**

DURANGON ERDI PREZIOAN

~~138€~~ ... ➔ **69€**

**Azoka egunetan
(abenduaren 4tik 8ra):**

ARGIAren standean (Goienkale 96-97-98)

Telefonoz: 943 371 545

e-postaz: harpide@argia.com

oparitu  **argia**

goienakluba

Abantailaz betetako kluba!



Erremeixuak **DVD-a** salgai

DVD-aren
prezioa:

14 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Goiena Klubeko
kideentzat prezio
berezia:

12 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Eskatu eta zure etxeko buzoian jasoko duzu!

943 25 05 05 • kluba@goiena.com

www.goienakluba.com

TTAKUN (H)ERRENKA

Inbertsio fondoak aukeran

E

skatologiko jarri zitzaigun Jose Luis hauteskunderen ondoren gainera zetorkiguna aurreikusiz-edo.

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padrón

Ez zen tronpatu; Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskunderen biharamunean ari natzaizue idazten, eta Espainiari dagokionez, emaitzak aski argiak izan dira. Gehiago absolutua PPrentzat, inoizko absolutuena alafede. Komunitate autonomo guztietan dira eskuindarrak garaile, Katalunia eta EAEn salbu.

Egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuta eta PPk egingo duena gogoan hartuz (ez da azitia izan behar hori susmatzeko), agerikoa da etorkizun beltza datorkigula. EAEko emaitzak ezberdinak izan direlako pozik dago jende andana, baina tira, momentuz behintzat, Espainiako Gobernuaren politikak pairatu beharko ditugu hegoaldekook, eta aurreikuspenak, zentzu horretan, aski etsigarriak dira. Espainiako Gobernuarenak eta EAEko edo Nafarroakoarenak, hiruetan baitu esku-hartzea PPk gaur egun. Haatik, Eusko Jaurlaritzarako hauteskunderen aurreapenaren inguruko zurrumurrua geroz eta handiagoa da, eta ez litzateke harritzekoa izango hilabete batzuen buruan Patxi Lopezek hauteskunderen aurreratzearen berri ematea. Lehendakari izateko Lopezek zilegitasunik ez duela iruditzen zait niri ere; ezagun denez, EAEn lehenengo indarra izatetik gertu dagoen adierazpen politikoaren ilegalizazio bidegabeari esker izendatu zutelako. Baina tira, azken bi hauteskundeetako PSE-EEren emaitza kaskarren aitzakian apartatzen bada ere gaitzerdi.

Dena den, ardura gehien eragiten didana nazioarteko testuingurua da, eta bereziki, Europakoa. Hor nonbait irakurri ahal izan dudanez, alderdien papeletak izan beharrean, Goldmann Sachs, Citigroup, J.P. Morgan, Santander eta gainontzeko banku eta inbertsio fondoak izan beharko

genituzke hautatzeko. Inork demokratikoki aukeratu ez dituenen esku baitago geroz eta gehiago herritarron patua. Arazo horri egin behar zaio aurre beste ezeri baino lehenago, eta horretarako Europa mailako alderdi eta mugimendu ezkerriar eraldatzaileen elkarlana eta ekintza premiazkoa da.

Marx zaharrak esan zuen gisan, demokrazia ez baita egiazkoa izango ekonomikoa izan arte, hots, produkzio-bideak langileen esku geratu arte (agur bero bat esaldi honen lepotik barre egin duzuen teknokrata liberaiei). Lau urtean behin bozkatzea ez dago gaizki, baina geroz eta agerikoagoa da kosmetika ariketa baten antz handiagoa duela. Horregatik ez naiz hain baikorra hauteskunde emaitzen biharamunetan, arestian aipatutako bankue-tako zein beste zenbait nazioarteko erakundeetako –FMI, Mundu Bankua eta abar– buruak imajinatzen baitituz atiko batean irri eta algara alderdien teatroari begira.

Ez nuke erori nahiko halako anarkismo negatzaile batean, baina ezker abertzalearen onarpen instituzionalaren –legalizazioa ez baita oraindik iritsi, ez dezagun ahantzi– ondorengo hordialdiak arazo sistemiko sakonak estaliko ez ote dizkigun beldur naiz. Esaten da maiz ezkerre galdua dabilela aspaldi handitik. Ez nago ados. Teorikoki eta diskurtziboki lan ona egin izan da azken hamarkadetan; hainbeste ezen marxismoaren birloratzeaz hitz egiten baita sarritan. Filosofia politikoaren lehen lerroan ditugu Laclau, Butler, Mouffle, Negri, Zizek, Perry Anderson, Badiou, MacKinnon, Eagleton, Balibar eta enparauak; Huntington, Fukuyama eta beste hainbat, ordea, ez dira sobera ageri azken boladan. Gaur egungo auzietako bat, oster, lanketa horren artikulazio estrategikoa osatzea da, zeina nazioartekoa izango baita edo ez da izango. ■



«
Lau urtean behin bozkatzea ez
dago gaizki, baina geroz eta
agerikoagoa da kosmetika
ariketa baten antz handiagoa
duela. Horregatik ez naiz hain
baikorra hauteskunde
emaitzen biharamunetan
»

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Arrisku Handiko Tartak

Nafarroan, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) obren hasiera ofizialak Yolanda Barcinaren tarten iskanbila ekarri du, eta Mugitu! taldeko hiru aktibista nafarrentzat 16 urteko (4+4+8) kartzela zigorra eskatu dute Madrilgo Entzutegi Nazionalan. Hiru tarten eraso bortitza Tolosan gertatu zen, Pirinioen bestaldean, Barcinak Pirinioetako Lan Erkidegoaren lehendakaritza hartzen zuen unean, eta agian, horregatik min gehiago jaso zuen.

Aferak epaiketa prozesua zabaldu du Frantziako Estatuan, baina Madrilen ere bai badaezpada. Frantziar akusazioa biolentzia falta batean eta kalte materialetan gauzatzen da. Espainiako instrukzioan aldiz, delitua agintarien aurkako erasotzat jotzen da eta “indarra, intimidazioa eta erresistentzia larria” leporatu dizkiete Julio, Gorka eta Ibani. Antza, edozein senide edo lagunaren arteko jaietako jarduerak sen kriminala adieraz lezake.

Zuzenbidea ikasi dugunontzat, Espainiako Justiziaren *disparate* juridiko hauek ez dira berriak eta “euskal sindromearekin” loturik daude, argi eta garbi. Euskal lastertasun handiko proiektuaren aurkariak beste batzuetan ere ezagutu dituzte Entzutegi Nazionalaren kriminalizazio prozesuak, hala nola, 2008an Ordiziako zebra-bide batean jesa-



INIGO AZKONA

rri zirenek eta Urbinako landetan 2010ean atxilotuak izan zirenek.

Teoriaz, Madrilgo Entzutegi Nazionala Justizia Tribunal berezia da narkotrafikoa eta terrorismoaren delituak epaitzeko, baita Espainiako Estatuaren instituzio gorenaren aurkako erasoak eta atzerrian egindako delituak ere. Kasu honetan badirudi azken hiruak betetzen direla, Nafarroako Gobernua-
ren, komunikabide nagusien, eta fiskalaren eta epailearen arabera. Hau eskandalua!

Gogorrena da, gure lurrian krisi sozial eta ekonomiko sakonaren koiuntura honetan eta sarraski ekologiko-energetiko erraldoi bat gertatzen ari denean, Espainia, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko agintariak eta hainbat komunikabide eta eragile sozial aktibisten tartetara begira ari direla eta ez dute triskantza ekonomiko-ekologikoa ikusi nahi. Urteak daramatzate AHTren kontrako euskal aktibismo ekologista kriminalizatzen, baina oraindik ez dute mugimendua ito. Jende asko beldurtu bai, noski, baina krisi sozio-ekonomikoa luzarorako da eta mugimendu sozialak gorantz joz gero, proiektu honen gainbehera eta aldaketa ikusteko ditugu. Hala bedi! ■



«
‘Indarra, intimidazioa eta
erresistentzia larria’
leporatu dizkiete Julio,
Gorka eta Ibani. Antza,
edozein senide edo
lagunen arteko jaietako
jarduerak sen kriminala
adieraz lezake
»

TXANDAN

Igor Estankona



Film haietako argia, Maite Idirinen musika, Bilboko ibaiadarra, airetik hartutako bista luze bat baserri eta soroena, Ruper Ordorika eta Roberto Moso musikaz... Euskal zinema eta are euskal nortasuna urgentzia antzeko batekin berreraikitzen ari zireneko denborak izan ziren. Antxon Ezeizak utzi gaituen honetan, berak eta Luis Iriondok ekoitzitako *Ikuska* sailera itzuli naiz, arranguraren eta malenkoniaren artean. Sarrionandiak ere badio: arranguraren eta malenkoniaren artean badago desberdintasun funtsezko bat, arranguratuari lekoreko

35 milimetro

mundua hondatu zaio, malenkoniatsuari bere burua desegin zaio.

Eta bizi izan ez nituen garaiak bota ditut faltan, galdu ez nuenaren hutsunea sumatu. Gero transformatzen ikusi dudaren zuloa dira dokumental haien irudi sakon eta erritmo pausatuak. Sekula ez ditut bizi izan, baina, hala ere, sekula ez dira nire gogotik desagertu euskal pizkundearen garrak. Orduan idatzi, filmatu, zizelkatu eta abestu zena edan dugu, eta edaten dugu oraindik. *Ikuska* sailean daude, besteak beste, edabe horren anphorak. ■



Xipri Arbelbide

APAIZA ETA KAZETARIA

Zer gau goxoa!

S

ud Ouest egunkariak zioen joan den astean, Cannes hirian iragan G20, munduko herrialde aberatsenen bilkura, 20 milioi euro gosta dela.

Gogoeta egon naiz, non mila deabru xahutzen ahal zuten horrelako dirutza. Okzitaniako Tolosan agertzen den *La Dépêche du Midi* egunkariak eman dit erantzuna.

Egunaz lan dorpea egin behar, egunek zortzi oren baino gehiago iraunen ezin bururatuzko eztabaidetan eta, ikusiz egun garrantzitsuak zirela, munduaren geroa eskutan zeukatela, nahi zuten trenpuan izan jaikitzean, lan ona egiteko. Goizean fleitean izateko, baitezpadakoa zen gaua ongi iragatea, ongi lo egitea, goxoan. Baldintza hobereetan behar zuten lo egin, gostarik gosta.

Eta kazetari deabru horiek denak jakiten! Gorago aipatu egunkariak erran digu zenbat gosta diren gau horiek. David Cameron Ingalaterrako nagusiak 1.950 euro eman dio gau bakoitz, Marriott hotelari. Zuk eta nik hilabete irabazten duguna baino gehiago gau batentzat. Ahalkegarria! Lotsagarria! Baina, erran bezala, gaitzeko lana bazuten egiteko.

Bigarren, Hu Jintao, Txinako nagusia. Honek 11.600 eman dizkio gau bakoitz Gray d'Al-bion hotelari. Munduko herrialde handiena izaki eta ez zenuket Ingalaterraren maila eman nahi halere. Handiena lehen beraz! Baina ez du lortu.



David Cameron

Ingalaterrako

nagusiak, 1.950

euro eman dio gau

bakoitz, Marriott

hotelari. Zuk eta nik

hilabete irabazten

duguna baino

gehiago gau

batentzat.

Ahalkegarria!



DANI BLANCO

Amerikako Estatu Batuak ez ote dira Txina baino gehiago? Obamak jauntxo horri erakutsi dio ez zela orainokoan segurik lehen mailara hupatua. 35.000 euro utzi dizkio goiz guztiez Carlton hotelari. Urrezko domina!

Batere ez! Zilarrezkoa bakarrik! Urrezkoa Sarkozyk eskuratu du: 37.000 euro gau bakoitz Majestic hotelari. Soldata %170ez emendatua Eliseoko palazioan sartzean, gastu guztiak Estatuaren gain (etxe, janari, jantzi, argindar, sehi, zakur, katu eta denak), soldata, sakelako dirutzat dauka. Eskuin eta ezker dabilelarik erosi postalak ez baitzaizkio hurbilezkorik ere horrenbeste gostatzen, nonbait behar zuen dirua xahutu. Zergatik ez Cannesko hotelean? Handienean! Frantzia zein handia den jakin zezan mundu guztiak.

Horra beraz nolako gizonen eskuetan den gure geroa. Lotsarik gabe indarño bat eskatu diete greziarrei. Beren zergak oso gaizki pagatzen dituzte eta. Baina ba ote dakizue Greziako konstituzioaren arabera, armadoreek ez dutela zerga ordaintzerik? Ez da harritzeko bere itsasontziteria munduko bosgarrena baldin bada.

Leher egitekoari doakionaz aldiz, Grezia lehen. Bihar nor?

Baina ez dira denak leher egitekotan ikusten duzuen bezala. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



biharamunak bizi gaituen egun hauetan bestelako gaiak alboratuta gelditzen zaizkigu gogoan. Gurean, *Lauaxetaren*

Gaztelu Baltza argizagiz hornitu du huteslegoak arerioen haserrera. Espainiako Estatuaren karta kolore bakarrekoa litzateke, gure eremua eta katalanena margotu ezean. Izan ere, Nafarroarenak ere aldatzeko bidea hartu du eta inertzia honetan, aurki, datozenetan espainol eskuindarra deskoloratua agertzeko zorian legoke. Espainiako arazo mingarrienetakoa izaten jarraitzen dugu, gu eta katalanak bestelakotzeko estrategiek behin eta berriz

Hauteskunde

huts egiten badie ere, ez dute amore ematen, eta, orain ere, esana dute publikoki ez gaituztela kontuan hartuko, eta ez bageunde bezala ekingo diotela berenari. Esan,

esaten dute baina ezingo dute bete. Zazpi *puñalek* hornituko dute euren kongresua eta jasan beharko dute haien dantza. Ezingo dute ebidentzia ezkutatu. Rajoyrenak gure garai bateko entrenatzaile desgaitu harena dakarkit gogora, “arerioari, urik ere ez” agintzen zigunean. Porrota bermatuta. Lau bat hartu eta ederki umilduta etxeratzten ginen burumakur. Ez zuen luzaz iraun, bota egin genuen. ■



BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Bertso berriak... zundaketei jarriak



INIGO AZKONA

I

Bi mila eta hamaika,
azaroak hogei,
hauteskunde eguna,
hirurak eta sei.
Eskolako atean
bi neska, "Cris" ta "Ley",
eskuetan, karpeta,
ahoan, "aupa", "ei"...
inkestak egiteko
bozkatu dutenei.

II

Zer boto eman duzun
kontatu, agure!
PPri eman diot,
hortaz ziur zaude!
PP esan du, baina
jarri PNV:
nahastu datu denak
eta egin pure...
CISek egin bazuen,
zertan ez geuk ere?

III

Ea hippitzar horrek
erantzuten didan...
hurbildu eta PP
esan dit segidan!
Itxura, aldiz, ez du
eskumaren jiran...
Ezin zara geratu
Itxuraren miran...
Niri, orain bi urte
PSE esan zidan.

IV

Zer bozka eman duzu?
UPyD, bada...
Zurea nora joan da?
Ezker Batuara...
Aurrekoan PSOE
boto zaparrada
izan zuen, baina gaur
joan da pikutara...
Igual ez da aurkeztu
hauteskundeetara...

V

Esango didazu zer
bozkatu duzun gaur?
Ez, ez dizut esango!
Bale, majo, agur!...
Joe, nola jarri den!
Bai, tia, ze mutur!
Gizajoak ere ez
du jakingo ziur
bozkatu dun Larreina
edota Amaiur.

VI

Laur urtetan elkartu
ohi gara bi aldiz
inkestetan jartzeko
ekis, ekis, ekis...
Segun zein tokatzen den,
Gizaker edo CIS,
kiniela irteten da
alde oso handiz...
Ea udaberrian
lana dugun berriz.



DOINUA: Esne saltzailearena



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Xabier Montoia

«Nik nahiko nuke dena modu naturalean egin, baina ezin da»

Xabier Montoiak modu konbentzionalean azken diskoa argitaratu zuenetik ia hamar urte joan dira. Tartean gorabehera ugari izan du, baina itzuli bada, itzuli da, *Montoiaren mundu miresgarria* diskoko hamar kantekin; etengabeko bilakaeraren azken emaitza da lan berria.

BEÑAT SARASOLA

Argazkiak: Dani Blanco



“Normalean disko bat egiten dudanean hurrengo saiatzen naiz pixka bat ezberdina egiten, batez ere ni neu ez aspertzeko”.

XABIER MONTOIAREKIN musikaz hitz egiten hasten zarenean deigarria egiten zaizun lehenengo gauzetako bat bere musika-kontzientzia da; zehazkiago, musika popularra-
rekiko –zentzu zabalenean ulertuta: musika

beltza, popa, rocka, punka eta abar– kontzientzia. Ez da musika mota horretan kokatzen diren obra nahiz musikarien ezagutza bakarrik –hori ere badago, jakina–, baizik eta bere garapen orokorrarena. Montoiak



Ni ez naiz Xabier Montoia diskoaren ondoren *Deus guti* izenekoa prestatu zuen Montoiak, baina ez zen argitaratu, ez behintzat modu konbentzionaletan —sarean aurki daiteke—. Grabazioa nola edo hala amaitutzat eman ondoren, pott eginda aurkitu zuen bere burua. *Montoia ren mundu miresgarria* bidean geratu zen disko haren antipodetan kokatzen da.

bere ibilbideari buruzko iruzkinak egiten dizkizunean garbi ikus dezakezu atzean zer dagoen; bere disko partikularretatik landa, musikaren gaineko hausnarketa osoa baita. Sarritan errepikatzen duen hitzetako bat “birziklatua” da, duela hamarkada batzuetako musika eguneratzeko saiakera antzuei erreferentzia egiteko. Errepikapena saihesten ahalegintzen da kosta ahala kosta, musika eredu ongi finkatu eta ustiatuetan erortzea ekiditen saiatzen da beti. Akaso horixe izan daiteke bere musika Euskal Herrian beti itzaletan geratu izana azaltzeko arrazoietakoa bat. Alabaina, euskal musikari begirada orokorragoa ematen badiogu, ohartuko gara hor egon dela beti, aldaketaren lehen lerroan: punkaren hastapenetan Hertzainakekin, post-punkaren bide ugarietan M-akekin, pop, elektronika edo drone-rantz bakar-kako lanetan —musika beltzaren oihartzun ia konstantearekin—. Etengabeko bilaketak markatzen du Montoia ren musika ibilbidea, inoiz geldirik ez geratzeko borondateak. 1981ean, Euskal Rock Erradikalaren ezteandaren atarian, *Euskal abestia hil da, gora rock&rolla* izeneko artikulu famatua argitaratu zuen; 2003. urtean, oster, *Ni ez naiz Xabier Montoia* diskoa argitaratu ondoren

ARGIari eskainitako elkarriketan “Rocka esklerosiak jota” zegoela adierazi zuen. Ia hamar urte ondorengo bere iritzia galdetu diot. “Nire sentsazioa rock&rollarekin, orain, momentu honetan... Orduan esaten nuena areagotua ikusten dut. Hau da, gauza bera jarraitzen dut pentsatzen baina gainera uste dut orain orduan baino are eta esklerosiak joagoa dagoela”. Gaur egun pertsona bakanetan ikusten du merezi duen musika, mugimendu edo joera jakinetan bainoago, estilo diferenteen barruko zenbait “frankotirtzailetan”: Robert Wyatt, Richard Hawley, Brian Eno, Steven Roach...

Montoiak *Lagunak, adiskideak... eta beste hainbat etsai* (1999) diskoan, bakarkako hirugarrenean, kokatzen du gaur egunera eramane duen bilakaeraren hastapena. “Orduan ez nintzen konturatzen, baina azken finean hor zegoen oinarria. Gitarra, baxua eta bateria, baina gitarrak ziren oso... horrela, nota txikiak, esaldi laburrak eta gutxi irauten zutenak. Nik uste dut, ja hortik aurrera abiatu nintzela nolabait”. Bere estreinako bakarkako

diskoa, *Beti oporretan*, M-ak taldean ari zen bitartean ondutako kantekin baina proiektu hartan ongi egokitzen ez zirenekin osatutako diskoa izan zen. *Hemen*, berriz, bere disko bizkor eta rockeroena da. “Lehenengo bi disko horiek nolabait, iraganeko zorren kitapen gisa ikusten ditut; M-aken garaitik motxilan neramatzan hainbat gauza ateratzeko ahalegina-edo.”

Lagunak, adiskideak... eta beste hainbat etsai argitaratu eta hiru urte ondoren azaldu zen *Ni ez naiz Xabier Montoia*, azkenekoa *Montoia ren mundu miresgarria* plazaratu den arte. Disko haren ondoren bira egin zuen “nik inoiz izan dudana talderik onenarekin. Bi bateriarekin, bi gitarrarekin... baina ez kantitatean bakarrik —inoiz izan dudana talde ugariena izan baitzen— musikarien kalitateagatik ere bai; sekulakoak ziren”. Bira hura amaitu, eta beti egiten duen legez, kanta berriak prestatzen hasi zen. Arestian, aipatu bezala, ordea, bide berriei ekite horrek baso sarri eta sastrakatsu batera eramane zuen. “Normalean disko bat egiten dudanean hurrengo saiatzen naiz pixka bat ezberdina egiten, batez ere ni neu ez aspertzeko. Orduan elektronikan oso interesatua nengoen, eta hortik jo nuen. Kantak egin ondoren grabatzen hasi eta oso bide

luzea... oso luzea izan zen, ez zen inoiz bukatzen; beti zeuden gauzak egiteko eta batez ere oso erritmo motela generaman. Gauzak hasi ziren pixka bat konplikatzen eta, bueno, oso esperientzia.... batez ere alde pertsonaletik, nahiko esperientzia txarra izan zen". Poliki adierazten du adierazi nahi duena, hitz bakoi-tza tentuz hautatuz. "Sentsazio hori, ezta? Sartzen zarela jardun batean, lan batean, eta oharkabean zurrumbilo baten erdian zaude eta ez dakizu zergatik, nola, nondik, nora, zer gertatzen ari den, baina bai, ordea, nabaritzen duzu hor zabiltzala buelta eta buelta eta, gero eta azkarrago eta gero eta nahasia-go eta galduago eta... eta hor zaude zulo horretan, ezin atera, ezin argia ikusi. Horrela, urtetan, ze hau urtetako kontua izan zen, ez zen izan aste batzuetakoa edo hilabete batzuetakoa". Grabazioa nola edo hala amaitutzat eman baina pott eginda aurkitu zuen bere burua, neurri batean bere erruz. "Elektronika menderatu beharra dago, eta nik ez dut menderatzen. Horrek eramaten zaitu beste norbaiten menpe egotera, hori menderatzen duenaren menpe hain zuzen ere, eta normala da gainera. Hori izan zen,

"Bi urte luze egon nintzen gitarra jo gabe, musika entzun gabe; autoan nindoan eta nahiago nuen musika kendu, ezin nuen jasan musika, deskonpresio erabatekoa izan zen"

suposatzen dut, nire akatsik handiena; hor sartzea hainbat gauza aldeztu aurretik ziurtatu gabe eta argitu gabe eta... bueno, dena... ez dakit nola esan, adiskidetasunaren eskuetan edo utziz. Beti pentsatzen duzu 'Lagunak garenez gero, konponduko gara, konponduko dugu...' baina bueno, gauzak ez dira beti horrela izaten, eta kasu hartan ere ez ziren horrela izan".

Deus guti titulua izango zuen disko hura, azkenean, ez zen argitara eman, ez behintzat modu konbentzionallean -sarean aurkitu daiteke-. Gurutze bide musikalean eta pertsonal hartatik igarotzeak musikatik erabat aldentzea eragin zion. "Bi urte luze egon nintzen gitarra jo gabe, musika entzun gabe; autoan nindoan eta nahiago nuen musika kendu, ezin nuen jasan musika, deskonpresio erabatekoa izan zen". Horrela ibili zen harik eta ezusteko bat jazo zitzaion arte; "epifania bat-edo" dio barrez. "Oso ondo gogoratzen dut. Behin piztu nuen telebista eta TF1en ematen ari ziren, ba, larunbat goizetan egoten den programa hortera tipikoa. Piztu eta berehala agertu zen neska gazte bat, hemezortzi urte omen zeuzkan

2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

finalaurrekoak

G·PUNTUA

HERNANI
2011-12-04 Galarreta pilotalekua / 17:30

Bertsolariak:
IÑAKI APALATEGI
JON MARTIN
AMAIA AGIRRE
JOKIN URANGA
IÑIGO MANTIZIDOR "MANTXI"
AINHOA AGIRREAZALDEGI

gipuzkoako bertsotzale elkarte

www.gpuntua.com



“Begira, nik tertulianoak gorrotatzen ditut, esan nahi dut, gauza guztiez dakien jende hori; nik ez dakit ezer ezertaz! Eta orduan, nola hitz egingo dut ez dakidanaz? Eta iruditzen zait elkarrizketetan-eta, askotan ur handiegietan sartzen garela”.

orduan... Lily Allen. Eta kantatu zuen *Smile* izeneko kanta eta ez dakit zergatik kanta hori entzun eta dena aldatu zen... edo sortu zitzaidan berriro musika egiteko gogoia. Eta hori da nire ustez funtsean reggae moduan emandako pop kanta delako. Nik uste ahaztua nuela popak izan dezakeen alde xarmangarri hori. Entzuten duzu doinu bat, doinu simple bat, xaloa, baina sartzen da zure garunean eta, nola esan... poz moduko bat ematen dizu. Halako kanta argitsu, distiratsu horietako bat”. Kurioso egiten zaiona da aldaketa ez ziola egundoko konposizio batek eragin, orduan Ingalaterrako salduen zerrendan lehen postuan zegoen abestiak baizik, uda hartako kanta izan zenak. Hortik aurrera kanta berriak egiten hasi zen, “oso pixkanaka” zehaztu duenez, eta apur bat beranduago baita kontzertu batzuk ema-

ten ere, zeintzuetan besteak beste, *Smile* bertsioa egiten baitzuen. Ibon Rodriguezek lagundurik hasi zen, eta harekin grabatu zuen, halaber, *Txinaurriak* diskorako prestatu zuten bertsioa, *Xoxo beltza* (*A round mid-night*). Ibai Gogortza ere batu zitzaizen lehenago zenbait emanalditarako. Azkenean, Gogortzak jarraitu ezin eta Rodriguezen bitartez Maite Arroita jauregiarekin ipini ziren harremanetan. “Ibon izan da zubia. Bueno, nolabait, istorio honen ardatza Ibon da”.

*Montoia*ren mundu miresgarriaren estudioko grabazioa *Deus gutiren* prozesu bihurri eta gorabeheratsuaren antipodetan kokatzen du. “Grabatzeko ikaratuta nengoen. Baina lehen momentutik inoiz baino erosoago aritu naiz. Inoiz ez dut disfrutatu estudioan, honetan ere ez, baina behintzat honetan ez dut sufritu, eta hori asko da niretzat”. Ander Barriusoren eta Ibon Rodriguezen lana eskertzen du, haiek ibili direlako ekoizpen lanean. Anderren esku egon da, orobat, grabazioa bera. Horretaz aparte, estudioan sartu zirenerako kantak ondo lotuta zituzten, eta egin nahi zutena ongi zehaztuta –“beste diferentzia bat aurrekoarekin”–, eta horrek ere asko lagundu ei du.

Abesti berriei buruz hitz egiten hasita, nahiz eta badakidan halakoak esanda arinkerian erortzeko arriskua hartzen dela, esan diot inoiz osatu duen kanta bilduma eder eta borobilena iruditzen zaidala. “Niri ere bai” esan dit berehala. “Baina, klaro, zer esango dizut. Sentsazio bera izango nuen aurrekoan ziur aski, eta aurrekoan ere bai... Baina bai, ni kanteekin oso pozik nago.” Diskoa prestatzeko Rodriguezen eta bere artean mila aldiz hitz egin izan dutela dio, egin nahi zutenaren kontzeptua oso argi zutela, oso modu naturalean egin dutela elkarrekin aurrera. “Niretzat disko hau erreaktiboa da nolabait, *Deus gutirekiko* beste muturrean dagoena. Elektronikarik gabe, sekzio erritmikorik gabe”. Kanta “klasikoak” egiten ahalegindu dela aipatu du, urteen poderioz, ekoizpena edo dena delakoagatik zahartzen ez diren horietakoak. Modu askotara jo daitezkeen kantak direla irudikatzen du: baxu, bateria eta gitarrarekin, orkestra batekin, DJ batekin, gitarra espainol batekin... “Kantak funtzionatzea inguruko apainketa guztiez ahaztuta, berez funtzionatzea. Horregatik saiatu naiz ekoizpenaren alde baino kantaren alde egiten, kantari oztopoak kentzen. Horretaz ari naiz kanta klasikoak direla diodanean”. Eta hortik, halaber, kantuon soiltasuna. Haien oinarria Montoiaren ahotsa, Rodriguezen gitarra espainola edo pianoa eta Arroita jauregiaren txeloak baitira soilik.

Azken momentuko aldaketa bakarrenetako kanta batekin izan zuen. “Lehen grabaketak egin ondoren entzun eta, ez dakit zergatik, Velvet Underground gogorarazi zidan, asko maite dudana taldea, bidenabar, baina ez nuen nahi halako arrastorik egotea. Diskoaren batasuna pitzatu egiten zela-edo iruditzen zitzaidan. Eta kanpoan geratu zen horregatik”. Haren ordeztu bi kanta konposatu zituen egun batetik bestera. Estudiora joan, eta lehenengoa jo zien kideei, *Botilarena*. “Ez zuten bestea entzun nahi izan”. Ez da harritzekoa, *Botilarena*, diskoko azkena, berehala kolpekatzen zaituen eta barne-barnean sartzen zaizun kanta horietakoa baita.

Hamar urte ondoren berriro ere promozio kontuetan —elkarriketak, aurkezpenak eta abar— ibili beharra nola daraman galdetu diot azkenik. “Niretzat zama da, elkarriketak, argazkiak, kamera aurrean jartzea... Hori niretzat gogorra da, ze gero ikusten dut nire burua elkarriketan eta beti deseroso sentiarazten naute; iruditzen zait esan dudana ez dudala behar bezala esan, ez dudala behar bezala adierazi, gehiegi esan dudala edo gutxiegi, edo modu ilun batean

“Saiatu naiz ekoizpenaren alde baina, kantaren alde egiten, kantari oztopoak kentzen. Horretaz ari naiz kanta klasikoak direla diodanean”

esan dudala, ez dudala asmatu gauzak adierazten, eta joe, horrek gaizki pasarazten dit”. Bestetik, azken boladan inoiz entzun izan diodana aipatu diot, alegia, nahiko nekatuta dagoela bere irudi iheskor eta ezkutu horretaz. “Bai, izan ere, oso zaila da oreka aurkitzea, ez? Esan nahi dut, joe... nik nahiko nuke dena modu naturalean egin, baina ezin da. Eta orduan beti dago tentsio hori, nola esan... begira, nik tertulianoak gorrotatzen ditut, esan nahi dut, gauza guztiez dakien jende hori; nik ez dakit ezer ezertaz! Eta orduan, nola hitz egingo dut ez dakidanaz? Eta iruditzen zait elkarriketetan-eta, askotan ur handiegietan sartzen garela.

Alde batetik hori, baina gero nire burua ez dut ikusten kontrako klixean ere. Badakit ni ez naizela hori, ni ez naizela beti uzkur dabilen hori; baina aldi berean ikusten dut nire burua defendatzeko beharra, eta klaro... nola asmatu? Nola aurkitu oreka hori? Nola esan esan beharrekoa eta ez besterik?

Noiz egin egin beharrekoa eta ez besterik? Noiz agertu agertu behar denean, eta ez agertu agertu behar ez denean?”. ■



**duran...go!
goazen!**

www.durango-euskaraz.net



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Eztabaida

Euskadi Sarietako lokatzetatik, ondorio batzuk

Joseba Sarrionandia “garbi” dago eta jaso ditzake Euskadi Saria irabazteagatik dagozkion 18.000 euroak. Hala esan du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak joan den astean, Espainiako Auzitegi Nazionalaren bedeinkazioa jaso ondoren. Baina aurtengo edizioiko polemikatik landa, ondorio zabalagoak ateratzeko balio beharko luke gertatutakoak.

GORKA BEREZIARTUA

KOMENI DA sariak ekarri duen titular uholdearen ostean, urak bidera etorri arau, kalteak zenbatzen hastea. Lokatz arrastoa teilaturaino iritsi da zenbait lekutan; ez litzateke gehiegizkoa parajea hondamen-eremutat hartze-ko eskatzea. Ze, berriz esan beharko da, Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi du Kultura Sailak Sarrionandiari zegozkion sosak ematea. Gertaera isolatua izan daiteke beharbada, ez da eguneroko kontua izango epaileek atzaparrak sartzea kultura kontuetan, baina problema da ez luketela inoiz eduki behar horrelako ebazpenetan eskurik, are gutxiago Auzitegi Nazionala bezalako salbuespenezko tribunalek. Nahikoa eta gehiegi judizializatu da honezkero bizimodua Euskal Herrian; eta gainera, momentu politikoarengatik baino ez bada ere, bestela jardutea eskatzen zuen egoerak.

Jaurlaritzak ez du erakunde publiko autonomo bati eska dakioken gutxienezkoa ere bete. Arazoa Joseba Sarrionandiaren iheslari kondizioa baldin bazen, dirua emateko bestelako formulak bilatu behar zituen Kultura Sailak, presio politikoei eta uhar mediatikoari men egin gabe –horiek bultzatuta hartu dira erabakiak: azaroaren 23ko *Berrian* Marije Sarrionandiak, idazlearen arrebak, Blanca Urgell sailburuarekin izandako elkarrizketaren berri eman zuen: “Azaldu zidan ‘presio politiko larriak’ dituztelako jokatzan ari zirela horrela”–.

Politika kulturaletan besteren menpe egongo ez den administrazioa zenbateraino den garrantzitsua, hori da ur zikin honetatik garbi atera daitekeen lehenbiziko ondorioa, gainontzean euskal idazle batzuk beti izango

baitira kontrakoa frogatu artean gaiztagin –edo gutxienez zerbait txarra egin izanaren susmagarri–, motibo estraliterarioengatik. Eta ez espainiarren begietan bakarrik.

Lapitz kamutsa

Lerrook idatzi diren egunean Xabier Lapitz kazetariak *Deia* egunkarian artikulua publikatu du gaztelaniaz, *Satanen folioa* izenekoa –“satanizatuaren defentsa” egin dutenei eskerak eman baitzizkien idazleak–. Lapitzek Sarrionandiaren obrarik apenas irakurri duela aitortu ondoren eskribitu du: “Oraindik ez digu esplikatuta zergatik uste duen satanizatu

dutela Espainian”. Ondoren, galdera erretoriko sorta: “Espero al zuen, akaso, bere kalitate literarioa txalotuko zutela, Espainiaren begitan kriminal bat baldin bada? Saiatu al da esplikatzen haiei ulertzea hainbeste kostatzen zaien hori? Egin al du satanizatzen dutenen ulermenari lagunduko liokeen ibilbide literarioerik? Benetan satanizazio hori esplikatzea

bere euskaldun kondizioa aurretik jartzea bezain erraza al da? Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe edo Unai Elorriaga ere euskaldunak dira eta Espainiako prentsak satanizatu ez, txalotu egiten ditu. Ergo...”

Ergo, beste esparruetan hainbeste kritikatzan duen Jaurlaritzaren irizpide berbera du afera honetan Lapitzek eta ez zaio bururatu, adibidez, argudioari buelta ematea, bere buruari galdetzea zergatik Euskal Herrian Sarrionandia ez den Luziferren sinonimo, zergatik den euskal idazle errekonozituenetako bat, zergatik dauden haren hainbeste testu imaginario kolektiboan txertatuta –maiz, era-

Politika kulturaletan besteren menpe egongo ez den administrazioa zenbateraino den garrantzitsua, hori da ur zikin honetatik garbi atera daitekeen lehenbiziko ondorioa



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Blanca Urgell Jaurilaritzako Kultura sailburua eta Marije Sarrionandia, Euskadi Sariak banatu ziren ekitaldian, azaroaren 23an.

biliaren erabiliaz, leku komun izatera iristeraino, dena esan behar bada—. Bitxia nazionalista batzuek, hizketa gaiak kulturarekin zerikusia baldin badauka, Espainian homologagarri izatea zein erraz onartzen duten, horretarako idazlearen sortzeko askatasunaren gainetik zanpa-zanpa pasa behar bada ere.

Literatura, jarduera birjin hori

Basatzatik atera daitekeen bigarren ondorioak Sarrionandia babestu duten batzuei ere zer pentsatua eman beharko lieke, ordea. Idazleak berak azpimarratua dizu, saria jasotzean leitzeko bidalitako testuan: “Prentsan esan da ez dudala gure herriko politikari buruz idazten, neure defentsan bezala. Baina *Moroak gara behelaino artean?* liburuko orrialde guztiak politikari buruzkoak dira. Ez kaleko edo prentsako ohiko eztabaiden terminoetan beharbada, baina, sarrera historikoaren ondoren, batez ere azken hirurehun orrialdeak geure gatazka eta aukerei buruzko hausnarketak dira”. Horrelako kontuak azpimarratzen aritu beharra triste samarra da, baina bistan denez beharrezkoa oraindik: kutsadura ideologikotik kanpoko esparru aratz, birjin eta kulpa oroz garbia aurkitu nahi duenak beste nonbait bila dezala, ez baitu aurkituko testu literariorik ideologiarik gabe, ez hemen, ez

Kutsadura ideologikotik kanpoko esparru aratz, birjin eta kulpa oroz garbia aurkitu nahi duenak beste nonbait bila dezala, ez baitu aurkituko testu literariorik ideologiarik gabe

inon. Badirudi hori saihestu nahian ari garela; euskal kulturari Trantsizioaz geroztik (gutxienez) kontsentsuaren esparru izatea egokitu zaiola, euskaldun guztion topaleku, eztabaidatik libre dagoen eremu –eztabaida politikoak, noski; baina baita estetikoak ere—. Eta horrek ezin du hala izan. Kultura ez da higie kolektiborako tresna, idazle batek posizio politikoak hartzen baditu –alde bateko ala besteko– ez da dagozkion zereginen marrak gainditzen ari –besteak beste, marra horiek ez direlako existitzen, batzuen buruetan salbu–.

Azkenik, Euskadi Sariak noraezean jarraituko dutela ondorioztatu daiteke aurtengo ediziotik. Aukera aparta galdu du Kultura Sailak, Sarrionandiaren saria gainontzekoena bezala eman eta azken urteetan uhertuta datozen urak baretzeko. Utikan manifestuaren sinatzaileak izan ziren sariei errotiko kritikak egiten aurrenekoak, 2007an; aurtengo ekainean jakin dugu Euskal Editoreen Elkarteak ere ez dagoela gustura Blanca Urgellen sailak egindako berrikuntzekin. Eta gauzek bide honetatik jarraituz gero, kosta behar zaio administrazio honi edo hurrengoari euskal literatura prestigio-tzeko balio beharko luketen sariak lohi artetik ateratzen. ■



Bertsolaritza

Errimen jolasa belaunaldi
batetik bestera

Duela 30 urte Durangon euskara gutxi entzuten zen kalean. Euskaldunak asko izan arren, etxe barrua zen beraren lekua. Euskaldunak batu eta kultur arloan jarduteko ezinegonak mugituta, euskaltzale batzuk bertsoaren inguruan bildu ziren; bertso eskola sortu eta galduta zeuden plazak berreskuratzen hasi ziren. Orduan ereindako haziak fruituak eman ditu. Bertso eskolan ibilitakoak eta dabiltzanak, hiru belaunaldi elkartu ditugu solasaldirako. Bizkaiko Bertsozale Elkartearen egoitzan batu gara, Durangon bertan.

AMAIA UGALDE

BELTZA. Euskal Herriko beste hainbat txokotatik legez, Durangaldean euskararen egoera beltza zen 1970eko hamarkadan. Horrela gogoratzen dute Kristina Mardaras eta Justo Alberdi senar-emazteek. 1980an sortu zen Durangoko lehen bertso eskolan jardun zuten Mardarasek eta Alberdik. Bertso eskola haren helburuetako bat galduta zeuden bertso saioak berreskuratzea zen: “Adinari dagokionez eten handia zegoen publiko eta bertsolarien aldetik; guk, kantatzen genuen

artean, plazak berreskuratzea ere gura genuen”.

Durangoko Kurutziaga ikastolan batzen zen helduen bertso eskola, eta Eibartik, Zornotzatik, Dimatik... baina batez ere Garai, Berriz, Abadiño, Iurreta eta Durangotik joaten zen jendea bertara. Auzo eta herrietako jaietan bertso saioak antolatzen hasi ziren. Tartean, 1986an, Durangoko Euskal Jaiei aitakian, Andra Mariako elizpean bertsozarako oholtza ipintzen zuten hilean behin:

“Meza batetik irteten ziren momentuan mikrofonoa hartzen genuen, eta hurrengo mezara gerturatzen zirenak eta irtendakoak bertan gertatzen ziren. Durango bertsozaleak eta euskara kalera ateratzea zen kontua”.

Igor Elortzak gogoan ditu Andra Mariako saioak: “Aho zabalik egoten nintzen zuek entzuten”. Bertokoez gain, beste bertso eskoletako jendea gonbidatzen zuten. Helduen bertso eskola haren amaieran bost kideren heriotzak eragin handia izan zuela gogoratu du Justo Alberdik: “Martxan genbiltzala hil ziren Angel Usaola *Kapela*, Joseba Zabala, Jose Ignazio Mazaga *Txasio*, Ibon Ertzilla *Fiño* eta Santi Belar *Begi* geroago”. Eskola hartako jendearek, geroago etorri direnei esker, egoera asko aldatu da: 30

AMAIA UGALDE



urteko lana eta gero Durangaldean 30 auzo inguruetakoz plazak berreskuratu dira, Alberdik dioenez.

Bigarren belaunaldiaren lehen pausoak

Begi eta Jon Lopategirekin hasi ziren Igor Elortza eta Unai Iturriagaren belaunaldiko gazteak bertso eskolan, Kurutziaga ikastolan bertan, 12-13 zeuzkatela. *Begi* ikastolako kontserjea zen, eta berarekin bertso eskolatik auzoetako hainbat saiotara joan ziren gazteak, bertsoak entzuteratzen, eta geroxeago bertsoetan jardutera. Unai Iturriagak euren lehen saioa gogoratzen du; Izurtzako jaietan izan zen, bertso guztiak arinagotik prestatuta. “Horrela egon ziren arazoak; bertso baten erdia eta bestearen erdia bota, baten bat amaitu barik utzi...”.

Iurretan, Kristina Mardarasek eskolako gazteekin jardun zuen bertso irakasten; orain bertso eskolan irakasle den Eneko Abasolo *Abarkas* zegoen tartean. Mardarasek gogoratu dauka bertso eskola denbora libreko taldea zela ia: “Sexologia klaseak ematen genituen, politikari buruz berba egiten genuen... Eta batzuetan bertso bat bera bota barik joaten zen ordua”. Bertso eskolako lagunarteak eta bertsoek eurek euskaltzalasunean eragina dutela nabarmendu du Unai Iturriagak: “Gogoratu dut gaztetxotik erdaraz berba egiteko sasoia heldu zitzaizkidan kontraesanak nituela bertsoarengatik.

Eskolaz eskola joaten ginenean kantatzeko gaia sarri euskara bera izaten zen, eta lagunarte hartan euskaraz dibertitzen banintzen, zertarako egin behar nuen erdaraz?”.

Bertso eskola berria

Tarte batean bertso eskola barik egon eta gero, iaz ipini zuten berriro martxan. *Abarkas* eta Erika Lagoma dira arduradunak, eta hamabi bat ikasle dabilta. Seigarren mailan Juanjo Respaldizarekin jardun zuten Kurutziaga ikastolan, eta batzuei gustatu egin zitzaizkien. Santa Ageda bezpera batean, Eneko eta Peru ikasleek *Abarkasi* kotxeko irratian bertso batzuk jartzeko eskatu zioten. Orduantxe hasi ziren bertso eskolari buruz berbetan, eta horrela, lagun batzuk animatu eta koadrilatxoak sortu dute. Errimak landu dituzte orain arte, eta duela gutxi hasi dira inprobisatzen, puntuka.

Lazkao Txikirekin

Igor Elortzak Lazkao Txikirekin bizitako pasarte bat ekarri du gogora: “Berarekin lehenengoz kantatu genuenean, Beasainen, 15-16 urterekin, nongoak ginen galdetu eta Durangokoak ginela esan genionean ez zigun sinetsi; hori ezin zela izan esaten zuen, Durangon erdara baino ez zela entzuten kalean, eta ezetz. Gero esan genionean Durangaldeko beste herri eta auzo batzuetako gurasoen semeak ginela, orduan onartu zuen: “Horrela bada, izan daiteke”.

Jendaurrean birritan kantatu dute, Iurretako San Migel jaietan, bertsolarien aurkezpenak egiteko. Diotenez, urduri. “Horrela hasten da bai!”, bota du Mardarasek; “eta plazarako asmorik bai edo?”, “bai... baina

txarto egiten baduzu...”. Igor Elortzak hori onartu beharreko arriskua dela dio: “Bertso onak botatzeko txar piloa bota behar da”. Mardarasek buruan dauka Igorrek berak 15 urterekin Bizkaiko finalean egindakoa: “Gelditu egin zen, eta gero berriro hastean, hura bai txalo zaparrada! Publikoak esfortzua baloratzen du”.

Etorkizunerako hazia

Unai Iturriagaren berbetan, “bertso eskolarik ez badago, ez da bertsolaririk sortuko”. Gipuzkoan lehenago gertatzen zena aipatu du: “Lehen ez zuten ber-

tsosa eskolan lantzen, eta denbora luzez hutsunea egon zen. Jendeak bazekien bertsoetan, etxean, auzoan, zaletasuna zegoelako, baina euren kabuz zebiltzan”. Bertso eskolek bertsolaritzaren jarraipena segurtatzen dutela azpimarratu du Iturriagak; “bertsolariak sortzeaz gain, bertsozaleak, gai-jartzaileak, saioak antolatuko dituztenak... irtetzen dira bertso eskoletatik”.

Urteotako beharraren ondorioz, bertso saioetako publikoa gaztetu egin dela nabarmendu du Mardarasek: “Lehen bertsolariak zaharragoak izaten ziren, eta publikoa ere bai. Bertsolariak gaztetu diren heinean, entzuleak ere hala egin dute”. Iurretako saioak etortzen zaizkio gogora: “Entzuten lau katu zeuden, lau katu nagusi, eta bi ume. Orain edozein bertso saiotan izaten den publikoa ikustean emozionatu egiten naiz”. ■



Justo Alberdi eta Kristina Mardaras (ezkerreko bikotea) bertsotan, 1986an.



Liburuak

KRITIKA

Sartu-irtena

Hemeroteka

Aritz Galarvaga

EZAGUTZEN GENUEN Pilar Iparragirre, aldizkari honi esker ezagutu ere. Kazetari gisa, beraz, nahiz eta literaturari buruzko orrietan jarduten zuen. Xabier Mendiguren editoreak liburu ahantzien Sautrela hartan aipatu zuelako jakin genuen gero nobela bat bazuela, 1980 urrun haietan idatzia, *Hilerriko jolasak* hauxe. Begira-begira, ikusi dugu Felix Likiniano militante anarkistari buruzko biografia bat eta deportazioari buruzko beste saio bat ere argitaratu dituela. Eta konprobatu dugu, tamalez konprobatu ere, fikzioaren eremuetan egindako sartu-irtena Bartleby harena bezalakoa izan dela, ale bakarrekoa.

Hilerriko jolasak, hortaz, 1960ko hamarkada hasierako hiri bazterreko langile auzo batean kokatzen da, bertako bizimodua harrapatzen du bi narratzailearen eskutik. Kontakizuna ahots bitan doa aurrera, paraleloan: auzora iritsi berri den neskato batek haren eta lagun gorabeheren berri emango digu; eta narraztaile orojakile batek familia baten egunerokoa fokatuko du. Paian-paian doaz lerrook aurrera, tupustean, ekaitz perfektua ematen den arte: ordura arteko hari ikusezin guz-

tiak txirikordatzten dira. Dena gertatzen baita egun berean, deabruren baten liburuan txarrerako bidea idatzirik balego bezala, maiatzaren lehenaren bezpera batean.


Batek pentsa dezake liburuaren meriturik handiena eskaintzen digun umeen begirada partikular hori dela, umeen esperientziak umeen ahotan jartzeko ausardia eta abildadea dela. Ikustea nola bizi duten kalea, nola eskola; ikustea nola bizi duten helduen mundu bat; nola heriotza bera ere gehitzen duten ohiko jardun ludikora; imajinazioa deitzen diogun horrek nola blaitzen dien guztia eta gehiago.

Baina horien aldean –sinesgaitz tarteka, behartuegi marteka–, interesgarriago egin zait eleberriak ematen duen paisaia soziopolitikoak, garai bat nola erretratatzeko duen hasiera batean bigarren maila batean dagoela dirudien arren. Auzoa aipatu dugu, jende iritsi berriaz gainezka. Extremadura edo antzeko parajeetatik etorriak, baina baita ere oso urrun egon ezin daitezkeen baserrietatik jaitsiak. Nola hizkuntzek eta ohiturek bereiziko dituzten, ez horratik patrikak. Eta nola sartzen diren konfliktuan osagai berriak ere, nola izatea txima luzeak, aditza musika arrotz deitoragarria izan daitekeen errefusarako aitzakia, etorkinen ondorengo izatea bezainbeste.

1989an argitaratu zen nobela, 1993an izan zuen bigarren argitarapena. Horrelakoetan geratzen den zalantza da nora eramango zuen Iparragirre literaturak, eleberri hau ibilbide literario baten hasiera izan balitz eta ez sartu-irtena.



Hilerriko jolasak.
Pilar Iparragirre.
Elkar, 1989.
170 orrialde.
9,95 euro.



txalaparta



www.txalaparta.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Anai-arrebak.
Anai-arrebak.
Autoekoizpena.
Iraupena: 13'48".
5 euro.

Disco musika berrasmatzeko irudimena eta kemenen

NAIZROXAREN errautsetatik bueltan datoz pasaia-tarrak eta koordenadaz erabat aldatuta. Ez beraiek ezta gu ere, ezingo gara musika honekin geldirik egon. Sintetizadore, aurre-grabatu, gitarra eta bateria aldean, neska eta mutil ahotsarekin musika discoa berrasmatu eta berpiztu dute. Gutun-azal sorpresa honen barruan euskaraz abestutako bost kanta aurki ditzakegu, hainbat estilo uztartuz (funky, soul, rock, surf, garage...); vintage ukitu

nabarmeneko bost kanta, etengabe jaira eta dantzara gonbidatzen dutenak. Ez hori bakarrik, partaideei ezinezkoa zaie ezkutatzeari nondik datozen eta, arrazoi horregatik, kantek indar handia dute barrenean. Kutsakorrak dira, irudimentsuak eta atzera begiratzerakoan onena gaur egunera ekartzen dakite. Gutun-azal sorpresa batean aurkitzeko moduko oparitzarra.

www.myspace.com/anaiarrebak

Matxet - Anai-arrebak

«Gu ez gara indieak. Ez dugu The Smiths entzuten»

Zuen gaztaroko talde eta estetika kitsch-a errebindikatzen dituzue...

Bai, estetika hori gustuko dugu, eta 1980ko hamarkadako filmek txoratzen gaituzte. Seguru horiek guztiek eragin digutela.

Disco musika ez al du zuetaz gain inork oroitzen?

Bai. Mutatzen joan da new wave, dance-rock, post-punk-era, baina talde haien esentzia mantentzen da oraindik ere. Horiek guztiak disco eboluzionatua dira.

Askotan egingo dizueten galdera: zuena talde serioa al da?

Bai, gatozen estiloetatik etorrita hasieran jendeak ez du sinesten, baina oso serioa da. Dibertsioa eskaini nahi dugu, festa handi bat, baina gauzak serio eginda.

Nolako familia da zuena?

Beste asko bezala, ondo ulertzen dugu elkar eta haserretu ere egingo gara. Taldearen sorreran esan izan dugu familiaren baloreak

galduta daudela eta heldu behar zaiela.

Musika dantzagarria bada ere, indar handia dago...

Nahiz eta iraganean metala egin izan dudan, beti identifikatu naiz punkarekin; eta oinarri hori beti geratzen da hor. Talde hau xuabea-goa izan arren, beti dago ostia txarra eta hori transmititzeko gogoia. Gu ez gara indieak. Ez dugu The Smiths entzuten, nahiago ditugu Iggy Pop eta Niga Hagen.

Hitzek mehatxu ukitua dute...

Musika oso koloretsua da, baina metafora asko erabiltzen ditugu. Oraingoan ere euskal kulturako iraganeko elementuak erabili ditugu. *Takoi besoetakoa*, adibidez, Miranderen liburutik dator.

Jaialdiak ixten irudikatzen zaituztet. Betiko dantzalekuen aldeko kanpaina egingo duzue?

[Barre egin du] Euskal Herrian dantza egiteko nahiko xomorroak gara. Dena



dela, jaialdiak ixteko prest gaude; seguru jendeak ondo hartuko gaituela.

Diskoa, zuzenekoak... Irudia asko zaintzen duzue.

Kontzertu bat ikustera joaten naitzen taldeak guztia lantzea nahi dut eta guk horri garrantzia ematen diogu. Diskoak erosten ez diren garaian, eman zerbait berezia, baita zuzenekoetan ere. ■



Ezpalak

JON TORNER

Xabier Leteren azken kontzertua, CD bikoitzean

XABIER LETEK 1999ko irailean Erreterian (Gipuzkoa) eskaini zuen kontzertua –berak emandako azkena– CD bikoitzean bildu du A&M Kultur Promotorak: *Xabier Lete zuzenean. Azken kontzertua*. 21 kantu jaso dituzte orotara, horietatik hamaika sekula grabatu eta diskoan jaso gabeak. Abenduaren 4an aurkeztuko dute Donostiako Kursaal auditorioan, *Xabier Lete gogoa* kontzertu biraren hamaikagarren emanaldian. Kontzertu berezia izango da, egun horretan beteko baita urtebete Lete hil zela. Kantari arituko direnen artean daude, besteak beste, Paco Ibañez, Bernardo Atxaga, Antton Valverde, Amaia Zubiria, Amets Arzallus eta Erramun Martikorena.

Euskal kultura laguntzeko diru funtsa sortu dute Baionan

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK (EKE) eta Baionako antzokia kudeatzen duen Scene Nationalek diru funts bat sortu dute. Helburutzat dute 35 urtetik beherako sortzaileen euskarazko proiektuak babestea. Bi ardatz ditu. Batetik, enpresa eta norbanakoen ekarpenen bidez, 50.000 eta 100.000 euro artean biltzea espero dute sustatzaileek. Bigarren ardatza sortzaileek osatzen dute. Nahi duen talde orok bere proiektua aurkeztu ahal izango du, 2012ko martxoaren 20a baino lehen, eta haietako bik diru-laguntza jasoko dute, egitasmoa aurrera ateratzeko. Dantza, zirku eta antzerki ekimenak babestuko dituzte EKEk eta Scene Nationalek. Diru funts hau Hogeita programaren baitan sortu dute.

Mumia Abu-Jamal

(AEB, 1954) presoari buruzko DVDa argitaratu du Eguzki Bideoak kolektiboak. Abu-Jamal Pensilvaniako presondetik heriotz korridorean dago 1981az geroztik. Kazetaria eta gazte-gaztetatik Pantera Beltzen Alderdiko (Black Panther Party) kide, Filadelfiako poliziaren arrazakeria eta indarkeria salatzeagatik da ezaguna.

1981eko abenduaren 9an atxilotu zuten, Daniel Faulkner polizia hil izana leporatuta. Haren historiari buruzko DVDa aurkeztu berri du Eguzki Bideoak-ek, jatorrizko hizkuntzan (ingelesez), eta euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko azpiztituluekin: *Nire bizia osoa espetxean*. Bestalde, Mumia Abu-Jamal atxilotu zutela 30 urte beteko diren egunean, abenduaren 9an, nazioarteko hainbat kolektibok sustatuta, *Nire bizia osoa espetxean* DVDaren emanaldiak egingo dira mundu osoan. Eguzki Bideoak-ek ekimenarekin bat egitera deitu du.


Getxoarte erakusketak 51 artistaren lanak jasoko ditu abenduaren 2tik 4ra bitartean Areetako geltokian. Getxoko Udalak antolatua, “artista gazteen lana sustatzeko, zabaltzeko eta ezagutzera emateko” helburua du egitasmoak. Hamaikagarren edizioan ikusgai izango diren pintura, argazki, grabatu eta ikus-entzunezko obra gehienak EHUKo Arte Ederren Fakultateko ikasleek egin dituzte.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Elxalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Federico Fellini eta Sara

Erakusketa: Ilusioen zirkua (Federico Fellini).

Donostiako San Telmo Museoa.

ILUSIOEN ZIRKUA erakusketa Ion Olano Carlos kazetariak iragarri zigun, eta ondo baino hobeto azaldu, ARGIAko 2.295 zenbakian (2011ko urriaren 23a). Horregatik menturatu berri gara berau ikustera. Horregatik, eta Federico Fellini zinegilearen eta ilusionistaren obra hagitx erakargarria delako.

Emazteak eta biok, eta seme-alabak hurbildu gara San Telmo. Lehen aburua –atsegina– museoak berak eman digu, berau berriro ondoren ikusi gabe genuelako ziur aski. Antzinako eta gaurko eraikinen uztartzeak eta kanpoko zabalgu-neak aire berezia ematen diote Museoari. Berant gabiltzalakoa sartu gara. Harrerakoek bisita gidatuarekin bide egiteko gonbita egin digute. Elkar begiratu dugu, baita onartu ere.

Lehenbiziko hitzetan ari da gidaria. Gaztelaniz dihardu. Multzo zabalaren aurrean ari da, sueto eta ederto. “Nor da Felliniren ezaugarri nagusia?” “Lilura”. Gidariak Felliniren lilura transmititzen du aiseki: Felliniren obsesioak –emakumezkoen ipurmasail eta bular oparoak–, Riminiko haurtzaroko oroitzapenak, herri kulturarekiko harremana, zinegile izan aurretiko ilustratzailea....

Roberto Rosseliniren *Roma, città aperta* ireki zion zinearen atea Felliniri, artean, gidoilari lanetan. Zineak, *La Dolce Vita* tarteko, bizitza ona eta gozoa esperimentatzea eskaini zion. Horrela diosku gidariak, *Amarcord* filmak utzi zion arrastoa azpimarratu du... Filma hamalau urte zituela ikusi zuela...

Luzaz eta oparo jarraitu du gidariak, hasierako hitzekin azaldutako lilura bera transmititu digu azken minutuan ere. Bukatzeko ordua gainditua, eskerrak emateaz bestera, Museo-ko kafetegian *luncha* zain dugula adierazi digu bisitariok. Jende multzoak eraman gaitu haraino. Familiakook elkarri begiratu diogu harriduraz: “Erakusketa dohainik eta *luncha*?”.

“Aizu, barkatu... ejem, zer da hau? Ez dugu ulertzen”. Gidariaren erantzuna: “*Ilusioen zirkua* La Caixako Gizarte Ekintzak finantzatua dago, eta jende hau haren langile multzoa da. Baina, lasai, geldi eta hartu zer bait. Inor ez da jabetuko ez zaretela La Caixakoak...”

“Fellini, gezurraren magoa” titulatu zuen Olanok bere erreportajea. Eta halaxe ibili ere gu, gezurretan. Lotsatuta ere gutako baten bat. Ez denok: “Pintxoak Arzak-ek eginak omen dira... kar, kar, kar”.

“Aizu, barkatu berriz ere. Hau lotsa! Atrebentziarekin... zure izena? Izen tipia besterik ez...”.

- Sara.
- Eta euskaraz ere erakusten duzu?
- Beharko!
- Bada, mila esker Sara, zuri eta Felliniri”.



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

EUSKARA AGERKARIARI BURUZKO ERAKUSKETA

IGNACIO ALDECOA Kultura Etxea
Abenduaren 14ra arte

GAZTE MUSIC SHOW

Abenduak 9, 18:00
Jimmy Jazz aretoa

GLU-GLU

12-36 hilabeteko haurrentzat
Arriaga GEko familia liburutegian.
Abenduak 14, 18:00-19:00

MAGIA: Madiber magoa

5-13 urte
Lakukako GE
Abenduak 20, 18:00

KONTZERTUAK

JOSEBA IRAZOKI

Hell Dorado, Abenduak 17, 22:00

ORTZEMUGAK BEGIETAN-KEN ZAZPI

Principal antzokia
Abenduak 27, 20:30

SIROKA

Parral taberna
Abenduak 27, 20:30

GAZTEBURU

Zure trebetasunak erakutsi nahi?

Kultur ginkana
Lakuako GE
Abenduak 17, 19:00-21:00
Izena ematea: 1 €

Pintxo lantegia

Pilarreko GE
Abenduak 18, 18:00-20:30
Izena ematea: 1 €

Gure lipdubeko protagonista bihurtu nahi?

Abenduak 27, Ibaiondo GE
11:00-13:30 eta 16:30-20:30
Izena ematea: 1 €

Eta askoz ekinza gehiago programa honen barruan

Eta haurrentzako Eguberrietako parkea eta Olentzero eta...

ADI EGON, LASTER

EUSKARAREN ASTEKO PROGRAMAZIOA!

MAITE DUZUN HURA, EUSKARAZ!




Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Hormak papereztatzen

Tolosar batek egongela berritu eta hormak paper berri batekin papereztatu nahi zituen. Ez zuen garbi ikusten, baina, zenbat paper-biribilki beharko zituen. Eta orduantxe gogoratu zen:

– Kontxo! Azpiko bizilagunak ere gela berritu berria du eta! Eta hark ere paper margotua erabili zuen gela janzteko. Berari galde-tuko diot.

Bizilagunarengana jaitsi eta:

– Aizu, Manolo! Zenbat paper biribilki erosi zenituen egongela berritzeko?

– Hogeita hiru! –erantzun zion bizilagunak.

Papera erosi, paretetan jarri, lanak bukatu eta lau biribilki soberan! Bizilagunarengana jaitsi eta lau biribilki sobratu zitzaizkiola esandakoan, besteak harriturik:

– Kontxo! Zuri ere lau sobratu zaizkizu, e!

Soluzioa

H	T	B	A	G	H	A	A	U	A
N	A	G	N	E	N	S	M	S	S
J	E	R	I	O	I	A	P	K	E
U	R	O	D	R	A	K	O	K	A
I	A								
N	I	J							
I	R	A							
R	A	A							
U	M	R							
M	A	R							
A	C	I							
O	K	I							
A	M	A							
P	E	L							
A	E	A							
R	R	E							
T	U	E							
Z	E	I							
E	N								
O	R								
N	O								

XABIER LETE GOGOAN

GASTEIZ

Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi)
Alex Sardui (Gatibu)
Mikel Urdangarin
Pier Paul Berzaitz
Arantxa Irazusta

Petti

Poeta: Bernardo Atxaga
Bertsolariak: Unai Iturriaga
eta Igor Elortza
Aurkezlea: Noel Elorga

Abenduaren 2an
Principal Antzokian
20:30tan

Sarrerak salgai: 15€, 20€, 30€
Principal Antzokia takila, <http://entradas.cajavital.es>
www.vitoria-gasteiz.org/teatros

Babesleak:  **Obra Social**
 **Vital Kutxa**


Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Laguntzaileak



goratuuskaltel.com

DONOSTIA

Enaut Elorrieta (Ken Zazpi).
Antton Valverde.
Paco Ibanez.
Pier Paul Berzaitz.
Erramun Martikorena.
Amaia Zubiria.
Anje Duhalde.
Oskarbi.
Arantxa Irazusta.
Petti.

Poeta: Bernardo Atxaga.
Bertsolariak: Amets Arzallus,
Xabier Euzkitze
Aurkezlea: Noel Elorga

Abenduak 4ean
Kursaal-en
19:00etan

Sarrerak salgai: www.kutxa.net

fundación **kursaal** *fundazioa*

Antolatzaileak:



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Autismoaren ezaugarri fisikoak aztertzen ari dira

JOURNAL OF THE AMERICAN ASSOCIATION aldizkarian berriki argitara emandako artikuluan batean, autismoa ikertzen ari den zientzialari talde batek adierazi du autisten garuneko hainbat eremu garrantzitsutan ohi baino



APNABI.BLOGSPOT.COM

askoz neurona gehiago dagoela, egin duten test baten arabera.

Heriotzaren unean 16 urte zituzten hamahiru gazteren garunak aztertu dituzte. Horietatik zazpi autismoa zuten; komunikaziorako, portaera sozialerako eta arretarako erabiltzen den eremuan, batez beste gainerakoek baino %67 neurona gehiago zuten haien garunek. Bestalde, autisten garuna autismo-rik gabekoena baino %17,6 astunagoa zen..

Ezin da momentuz behin betiko ondorioz atera test



horretatik, baina autismoaren ezaugarri neurologikoen alorrean etorkizunean egin beharreko ikerketen bidea zabaldu da.

Beira bezain moldagarria eta kautxua bezain tolesgarria

PARISKO MATIÈRE LABORATEGIAN Ludwik Leibler ikerlariak zuzentzen duen taldeak gantz-azidoetan, epoxi erretxinetan eta katalizatzaile batean oinarritutako material organiko berria garatu du, *Science* aldizkarian argitara emandako artikuluan azaldu dutenez.

Ikerlarien helburua hainbat polimerok dituen propietate mekanikoak lortzea da, baina alderdi negatiboak baztertuz. Polimero asko, esaterako, ez dira birziklagarriak, edota behin itxura bat hartuta ezin dute inoiz beste bat hartu. Leibler eta haren lankideek lortutako polimeroa, berriz, nahi adina molde daiteke, birziklagarria da eta nahi izanez gero zurrina izan daiteke.

Oraingoan, aurreikusten da material berria soldaduretan eta automobilen karrozeriaren konponketan erabali ahal izango dela. Hala ere, hasitako bideak beste material batzuk lortzea erraztuko duela uste da.



CYRIL FRESILLON



la ornodun guztien arbasoa

25 urtez 30.000 espezie, giza-kia barne, aztertu ondoren, espezie horiek aitzindari bera dutela ebatzi da. Aitzindari horrek, espezie gehienok ditugun bost zentzuez gain, seigarren bat ere bazuen, uretan eremu elektriko ahulak detektatzeko ahalmena alegia.

<http://ttiki.com/32830> (Gaztelaniaz)

Argia baino azkarrago mugitzen diren neutrinoak

Joan den hilean Italiako eta Frantziako ikerlariek argia baino azkarrago mugitzen diren neutrinoei buruz esandakoa azaroaren 17an baieztatu da. Egindako azken probetan emaitza harrigarriak lortu dituzte.

<http://ttiki.com/32831> (Gaztelaniaz)

Epe motzeko memoriaren garrantzia

Espezialitate jakin batean onenak direnei inteligentzia handia egotzen zaie. Baina, itxuraz, adimenaren alderdi jakin batek garrantzi handiagoa dauka besteek baino. Michigango Unibertsitateko (AEB) Zack Hambrick psikologoaren arabera, epe motzeko memoria izan daiteke besterik gabe ona izatearen eta txapelduna izatearen arteko aldearen gakoa.

<http://ttiki.com/32832> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Tiragalerik gabe

BASOA, INGENIARI ETA BASOZALEEN ZAIN ez dagoenari eskerrak! Gure herrian, Usurbilen, Gipuzkoako Foru Aldundiak 700 hektareatik gorako mendi bat beretzat hartua du, berezko jabea duen herriari bueltatu gabe. Irisasi mendia da. Bertan, azken mendeen, basogintza basatiena egin da, hau da, pinua pinua eta pinua. Tarteka beste espezieren batekin ere saioak egin dituzte, baina basogintza lan guztien helburua beti bera izan da: dirua. Sail puska horrek ingurumenarako duen garrantzia inoiz ez dute kontuan izan. Dirua eta dirua.

Beste ezerk zentzarazi ezin eta baso ingeniariari onddo ttipi ñimiño batek aurre egin die. Eta airean dauzka, beldurak airean. Lurreko onddo horrek eragiten duen gaitzak jota, pinudiak gorritzen eta hiltzen ari dira. Aurki insignis pinua gure burutazioetatik desagertuko da. Baso beltza iraganeko kontua eta basogintzaren historiaren ikerketa gaia izango da.

Irisasin pinudiak bota eta berriro pinua jartzeko

plangintza lotsagarria ezin burutu dute. Lan hori aginduko lukeen politikaria eta zuzenduko lukeen ingeniaria denon algara-bazka lirateke. Pinua atera eta soildutako sailak lur gorri daude...

Eskerrak, baina, basoa inoren zain nagituta ez dagoenik. Eta tiragaleak egin beharrik gabe, bertako baldintzetara, onddo ttikia tartean, ederki asko egokitutako makina bat zuhaitz eta arbola sail horietan okupak egin dira: arantza beltzak (*Prunus spinosa*), zumarrak (*Ulmus* sp.), maaltzak (*Pyrus* sp.), maspilak (*Sorbus torminalis*), astigarrak (*Acer campestre* eta *Acer pseudoplatanus*), hurritzak (*Corylus avellana*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), haltzak (*Alnus glutinosa*) eta abar, ingeniariaren beldurak diruaren kopetakotik askatu eta okupatutako mendi-lurretan lagunarte polita topatu dut. Egin berri diedan bisitan poza hartu nuen, indarrean topatu nituen, auzolanean gogotik. Naturalena den kaosera bidean auzolanean.



DIANE EARL



HENRY SALOMÉ-CC BY SA NC



NIKANOS-CC BY SA

Ezkerretik eskuinera: arantza beltza (*Prunus spinosa*), hurritza (*Corylus avellana*) eta haltza (*Alnus glutinosa*), Usurbilgo Irisasi mendiko basoan okupa egin diren espezieetako hiru.



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Liburu-tabernak Antzinako Erroman

ERROMA, K.A. 50. URTEA. Tito Ponponio Atiko, idazle eta historialaria, Zizeronen obren argitaratzaile eskusibo bihurtu zen eta, horrenbestez, Erromako editore nagusietakoa izan zen. Baina ez bakarra. Atikok Quirinale mendian zuen argitaletxea. Sosio anaiek, aldiz, Janoren arkutik gertu zuten negozioa, eta Horazioren obrak kaleratu zituzten. Tito Livioaren *Historia* monumentala, berriz, Doro greziarrak editatu zuen, eta Kintilianoren lanak, Trifonek.

Egileek ez zuten gehienetan obra eskuz idazten; testua kopiailei diktatu ohi zieten. Lehen kopia hori irakurketa publikoetan aurkeztu ohi zuten eta, sarritan, aurkezpen horien arrakastaren arabera erabakitzen zuten editoreek lana argitaratu ala ez. Atikok hainbat kopiagile eta zuzentzaile zituen tailerrean, eta berak diktatzen omen zituen edukiak. Aste gutxian dozenaka ale kaleratzea lortzen zuen erromatar argitaratzaileek; milaka aleko argitaraldiak ez ziren posible izan inprenta asmatu artean.

Egileek gutxitan lortzen zuten irabazirik. Etekinak editoreentzat izan ohi ziren, baina kostuak ere beren gain hartzen zituzten. Eta ez ziren makalak. Papiroa, esaterako, oso garestia zen; eta bizkarrean lotutako pergaminozko liburuak ez ziren IV. mendera arte nagusitu. Kostuak berdintzeko, tailer gehienek kalera ematen zuen liburu-denda edo *taberna libraria* delakoa zuten, kopiak zuzenean publikoari saltzeko.

Ez zegoen egile eskubiderik. *Oratio publicata libera est*, argitaratutakoa guztiona dela, alegia. Eta, besteak beste, Simako hizlaria horren kexu zen, baliabideak –idazten zekiten esklabuak– zituztenek



Ponpeiako Misterioen Villako freskoa. Haurra papiro bat irakurtzen ari da, eta alboko emakumeak ere papiro bilkaria du eskuan.

kopia “piratak” egin zitzaizketelako. Hala ere, kopia horien kalitatea kaxkarra izan ohi zen, materialari zein edukiari zegokienez.

Nobela piperdunak nahiz abenturazkoak eta zenbait antzezlan ziren Erromako *best seller*-ak, eta, horien atzetik, diskurtso erretorikoak, historia liburuak eta poema satirikoak ziren salduenak.

Julio Zesarrek eta Augustok Erromari liburutegi handi bat emateko ahaleginak egin zituzten arren, Inperioko hiriburuak ez zuen sekula Alexandriakoa edo Pergamokoa bezalako liburutegi bikainik izan. Baina editoreen lanari esker, ehunka liburutegi pribatu sortu ziren hirian.



Arrastoak

Izurri beltzaren ADNak aurkitu dute



PIETER BRUEGHEL

YERSINIA PESTIS izeneko bakterioak eragin zuen XIV. mendean izurri beltz edo bubonikoa, Europako biztanleen herena hil zuena. Alemaniako, AEBetako eta Kanadako hainbat unibertsitatek, elkarlanean, bakterio horren ADNak identifikatu dute berriki.

Jakina, aurkikuntzak ez du eraginik izango XIV. mendean eragin zituen 50 milioi hildakoetan, baina etorkizunean zenbait pandemia aurreikusten lagun dezake, egun munduan dauden izurri piztaldi guztiek bakterio hori bera baitute jatorri.

ETAren amaiera

Euskadi ta Katalunia

ETAk Katalunian izan duen eragin politikoa gutxitu egin da denborak aurrera egin ahala, baina gertaera esanguratsuak izan ditu: Hipercor-eko atentatua, Ernest Lluch en hilketa eta Carod-Rovirarekin Perpignan en egindako bilera.

ALEX MILLAN / EL TEMPS

ETAK GAUR EGUNGO kataluniar politikan duen eragin urria –nagusi-ki, kanpo eragile distortsionatzailea da ordezkari-za parlamentarioa duten alderdi politikoentzat– oso bestelakoa da garai batean indar anti-frankista guztiengan –diktadurak iraun zuen artean, erreferente izan zen– eta independentismoan izan zuen eraginarekin alderatuta. 1987ko Hipercorreko atentatua inflexio puntua izan zen, analista guztien arabera, batetik, atentatuaren beraren garrantziagatik eta, bestetik, atentatua baino lehenago, Europarako hauteskundeetan, Herri Batasunak (HB) 39.000 bozka baino gehiago lortu zituelako printzerrian (HBk hauteskunde horietan lortutako boto guztien %10 baino gehiago).

1970eko hamarkadan euskal independentisten letra zopa luzea eta konplexua zen. Horrek, Roger Buch politologoaren hitzetan, “trantsizio garaiko alderdi independentista kataluniarrek independentziaren aldeko euskal mugimenduekin zituzten harremanak banandu zituen, eta militanteak nahasi zituen”. Buchek azaltzen duenez, “trantsizioan, Partit Socialista d’Alliberament Nacional (PSAN) alderdiak hainbat adierazpen bateratu sinatu zituen, Union do Pobo Galego (UPG) eta ETArekin batera”. Baina 1974tik aurrera, soilik PSAN-Provisional izango zen –urte hartan zatitu zen eta 1979an Independentistes dels Països Catalans, IPC, bihurtu zen–, eta UPG nahiz ETArekin batera egindako adierazpenak noizbehinkakoak izan ziren.



DIARIO DE NAVARRA

Hipercor-eko atentatua ETArekin historiako odoltsuena izan zen.

Buchen arabera, garai hartan PSAN-Provisional alderdiak laguntza logistikoa ere eman zion euskal erakundeari, bereziki, Euskal Herrian 1975ean ezarri zen salbuespen egoeran.

Hipercor-eko atentatuak inflexio puntua eragin zuen esparru independentistan ETAK sortzen zuen liluran

1978an sortutako Terra Lliurek ere lotura izan zuen ETArekin hasierako urteetan. Sortzaileetako batek, Frederic Bentanachs-ek, behin baino gehiagotan azaldu du, hasi berritan, Terra Lliureko zenbait militante –bost, beste iturri batzuen arabera– ETako militanteek trebatu zituztela, eta 1979an ETak bere izenean, Katalunian, hiru atentatu egiteko eskatu zien, irakaspenen ordainetan. Atentatuak egin zituzten, eta, Bentanachsen esanetan, “hortxe amaitu zen harremana”.



Carod-Rovira Perpignanetan ETArekin bildu zen 2004an.

Horrez gain, beste elkarlan kasu bakar bat ere izan zen ETA(PM)rekin. 1980an, Bergako koartel militarren aurkako eraso zapuztuan PSANeko hiru militante hartu zuten parte. Horren ondorioz, eraso egin zutenei babesa emateagatik, Bageseko 30 bat militante atxilotu zituzten –horietako asko Nacionalistes d'Esquerra mugimenduaren alde zeuden PSANeko militanteak—. 1991n Pere Bascomte buru zuen taldeak armak utzi zituen, 1992an, aldiz, 50 militantetik gora atxilotu zituzten Garzón operazioa delakoan, eta, horrenbestez, Terra Lliure taldearen ekintzak amaitu ziren.

Terra Lliureko kideetako batek, Carles Castellanosek, *Reviure els dies. Records d'un temps silenciats* (Egunak biziberritu. Isildutako garaia oroitzapenak) autobiografian azaldu zuenez, lilura bat-batean joan zitzaion, atxilotu zutenean ETArekin laguntza eskatu eta ETArekin eman ez ziolako. “Castella-

nosek esandakoa –dio Buchek–, euskaldunek ez zutela elkartzarekin jokatu, ahaztu egin zen edo, behintzat, ez zen aintzat hartu, eta, handik urte gutxira, berriro ere, ETArekin independentisten belaunaldi berriak liluratu zituen”.

Hipercor eta gero

Roger Buchen ustez, Hipercorreko atentatuak inflexio puntua eragin zuen esparru independentistan ETArekin sortzen zuen liluran. Egun batzuk lehenago, lehen hauteskunde europarretan, 39.000 boto baino gehiago lortu zituen Katalunian, baina handik aurrera bozka kopuru horren erdira hurbildu besterik ez zen egingo.

Buchek nabarmentzen duenez, hasieratik “HB hauteskundeetan soilik HB gisa aurkeztu zen, eta ez zuen alderdi kataluniarrekin itun egin nahi izan, horietako batzuek, esaterako, MDTk erabateko babesa eman zioten arren”. Moviment de Defensa de la Terra (MDT) PSAN-aren eta IPCren batasunetik

sortu zen 1984 eta 1985 urteen artean. Hipercorreko atentatuaren ondoren, HBri sostengu esplizitua ematearen komenigarritasunari buruzko barne eztabaidek Kataluniako independentismoaren euskal liluraren efektuak itzali zituzten. Independentistak ez ziren alderdi kataluniarrentzako, ETA anomalia deserosoa zen Hipercorreko atentatu baino lehen ere.

Handik aurrera, independentziaren aldeko alderdien bidean, ETArekin ekintzak barne politikan aurreikusi ezinezko ondorioak zekarzaten distortsio saihestezinak izango ziren, gero eta gehiago. Distortsio hori agerikoagoa izan zen 2000. urtean Ernest Lluch ministro ohi sozialista hil zutenean. Lluchek etengabeko harremana zuen euskal sozialistekin, bereziki Donostiako alkate Odon Elorzarekin, eta elkarbizirik ezinbestekotzat jotzen zuen ETArekin armak utzi zitzaion. Urte hartan, Josep Lluís Carod-Rovira Arnaldo Otegi Batasunako buruzagiarekin bildu zen.

Bloke konstituzionalista delakoaren irakinaldi betean, eta alderdien legea prestatzen ari zirela, bilera isilean egin zen, baina, azkenean, *ABC* egunkarian agertu zen, xehetasunez azalduta: “ERCKo buruak ETArekin Kataluniako atentatuaren amaiera ituntzen saiatu dira, independentismo kataluniarren irudia hobetzeko. [...] Carod-Rovirak bere alderdiaren kezka azaldu dio Otegi-ri, 2000. urtean Katalunian burututako atentatuengatik, nagusiki Ernest Lluch katedradun eta ministro ohi sozialistaren hilketagatik. Buruzagi errepublikararen arabera, atentatu horiek kalte handia egin diote Kataluniako iritziz publikoak euskal nazionalismoaz zuen irudiarri, eta, zeharka, independentismo kataluniarren irudiarri. Carodek Otegi bitartekari lanak egin zitzaion nahi zuen, ETArekin zuzenean hitz egin eta su-etena eskatzeko”.

Carod-Rovirak Kataluniarako su-etena partziala eskatu izana ukatu zuen, baina Ernest Lluch hilketa kritikatu zuela onartu zuen: “Logikoa da Arnaldo Otegi ETArekin Katalunian izandako jardueraren kondanatzaren nuela adieraztea”. Beraz, independentismoak ETA bere inte-



Tierra Lliure-ren afixa. Talde armatu honek harremanak izan zituen ETArekin bere hastapeneko urteetan.



Ezkerrean, Ernest Lluch, ETak 2000. urtean hildako politikaria; eskuinean, hilketa gaitzesteko manifestazioa Bartzelonan.

resentzat kaltegarria zela edo, gutxienez, distortsioa eragiten zuela uste zuen. Elkarrizketen eta ETA-ren ekintzak gaitzestearen azken kapitulua 2004an Carod-Rovirak Perpignan hainbat etakiderek in egindako bilera ezaguna izan zen. Dagoeneko hiruko gobernuaren

barruan zegoen —kontseilari nagusia zen—, eta une horretan Generalitateko jarduneko presidentea zen, gainera. Berriki, *Punt Auri* egunkarian, Carod-Rovirak bilera haren nondik norakoak azaldu ditu. Bere esanetan, Kataluniara mugatutako su-etenik ez zuen eskatu, ETak soi-

lik bide politikoak jorratzea baizik.

Azkenean, bilera hau ere jakitera eman zen, eta Carod-Rovirak dimisioa eman behar izan zuen. 2004ko otsailean, ETak su-etena iragarri zuen Kataluniako autonomia erkidegoan. ■



publizitatea

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskarari gorazarre egiteko, euskararen alde egiteko eta, azken batean, euskaldun guztiak batzeko, egun handia da abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna, eta aurten ere hainbat erakunde, elkarte, erakunde publiko eta herritarrek ekitaldi bat baino gehiago antolatu dute euskaldunontzat handia den egun horretarako.

Iazko Euskararen Nazioarteko Egunean, esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan hainbat ekitaldi antolatu zen: musika-kontzertuak, mintzodromoa, lehiaketak... eta Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik, ekintza horiek burutu ahal izateko diru-laguntzak eman zituen. Aurten ere diru-laguntza jasoko dute udalek eta lurralde bakoitzeko aldundiek antolatuko dituzten ekintzak aurrera eramateko.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurtengorako prestatu duen ekital-

di nagusia abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, burutuko da, Donostian. Egun horretan, gaueko 22:15etik aurrera, euskararen aldeko eskupilotako jaialdi bikain bat jokatu da Atano III.a pilotalekuan. Bi partida interesgarri izango dira, eta lehen mailako neurketan Xala eta Laskurain Bengoetxea VI.a eta Barriolaren aurka ariko dira lehian.

Ez da ohiko pilota-jaialdi bat izango, ordea. Ikusleak pilotalekura sartzean, esaterako, euskararen aldeko hitz, esaldi edo dena delakoa idatzi beharko dute sarreran jarriko den taula erraldoi batean: hitz bat, esaldi bat, hausnarketa bat... Edozerk balioko du. Horrez gain, lehen partida amaitu ostean, euskararen aldeko adierazpen bat irakurriko da pilotalekuko kantxan bertan, eta adierazpen horri babesa emateko kultura, kirola... eta, finean, euskalgintzako eragileen hamaika ordezkari bilduko da.

MCCren ildo berriak

Lehiakortasuna eta izaera kooperatiboa xede

Mondragon Korporazioak 2011ko Kongresua burutu du berriki. Datozen urteetarako enpresa politika onartu zuten, eta ez dituzte baztertu “gure enpresa egitura egokitzeko” itun estrategiko berriak, balio erantsiko enplegua sortzeko helburuz.

DANIEL UDALAITZ

MONDRAGON KORPORAZIOAK ez ditu baztertu balizko itun estrategiko berriak, eta negozioen neurria merkatu globalari egokitzearen alde nahiz goraka ari diren merkatuetara jotzearen alde egingo du. Halaber, hazkunde ahalmen txikiena duten jarduerak birbideratzeko prest dago, eta proiektu integral korporatiboen aldeko apustu irmoa ere egin du. Aldaketa edo egokitzapen horiek guztiak beharrezkoak izango dira kongresuaren helburu nagusia lortzeko: kooperatiba osatzen duten enpresen egiturak, balio erantsia duen enplegua sortzeko moldatzea.

Norabide horiek Arrasaten, pasa den irailean, Mondragon Korporazioaren urteko kongresuan hartutako erabakien parte dira. Urteko kongresuan taldeko kooperatiba guztietako 650 ordezkari esku hartu zuten. Halako kongresuen helburua korporazioa bideratuko duten arau eta irizpide orokorrak zehaztea da. Hau da, interes komunezko funtsezko gaien buruzko oinarritzko politikak definitzea.

Mondragon Korporazioa Euskal Herriko enpresa eta kooperatiba talde garrantzitsuena da. Industria taldeak, finantza arloak (Euskadiko Kutxa eta Lagun Aro) eta banaketa taldeak (Eroski) osatzen dute. 2010eko ekitaldiaren amaieran, euskal korporazioaren aktiboa 33.099 milioi eurokoa zen; 178 milioi euroko etekin sendotuak izan zituen; eta mundu osoan 83.859



MCC taldeko enpresa garrantzitsuenetakoa da Fagor.

langile ditu, gehienak kooperatibako kideak.

Gizarte eta enpresa politika 2013-2016

Mondragon Korporazioko aurtengo kongresuak korporazioaren

etorkizunerako funtsezkoa den dokumentu bat aho batez onartu zuen: *Gizarte eta enpresa politika 2013-2016*. Dokumentuak korporazioaren ikusmoldea eta erronkak nahiz enpresaren oinarritzko jarduerak ildoak zehazten ditu. Jakina, kide

Eroskik 1.300 milioi eurotan murriztu du zorra

Eroskik, Espainiako Estatuko laugarren banaketa taldeak hazkunde eta hedatze prozesu garrantzitsua burutu du azken urteotan, batzuetan arrisku handiak hartuz, eta arazo handiak ekarri zituen kasuren batean, emaitza negatiboak lortuz. Zalantzarik gabe, arazo nagusia finantza zor handiak dira. Dena den, egia da hasieratik zezenari adarretatik heldu ziola eta finantza zorra murrizteko plan bat egin zela. Azken urteetan 1.300 milioi eurotan murriztu du zor hori, eta beste 500 beharko lirategi zor "eramangarria eta egokia" izateko, Eroskiko presidente Agustin Markaideren hitzetan. Gaur egun, Eroski Talde-

ko zorra 1.500 milioi eurokoa da. Markaideren arabera, Eroskiren emaitzak urteko lehen seihilekoan iazko aldi berekoak baino hobeak izan dira, produktuak nabarmen murriztu arren. Halaber, eraginkortasuna hobetu da, zorduntze txikiagoak ez baitu finantza gastuen faktura handiagoa berdindu. Emaitza onenak supermerkatuek lortu dituzte, eta hala hipermerkatuen jarduera ahulagoa orekatu dute. Frankizien bilakaera ere positiboa izaten ari da (Eroskik 500dik gora saltoki frankiziatu ditu), eta formula horren alde egiten jarraituko dute la adierazi dute.

kooperatibistek dokumentua aurrez eztabaidatu zuten, eta, ondoren, kongresuan bildutako ordezkarien bidez (650 lagun), onartu egin zuten.

Dokumentu horrek ondoren kooperatiben plan estrategikoak landu ahal izateko abiapuntua ezarri du. Eta erronka bat jarri du mahai gainean: "gure enpresa egitura egokitzeta" balio erantsiko enplegua sortzeko. Laburbilduz, eta Mondragon Korporazioko arduradunek adierazi dutenez, hauek dira datozen urteetako helburuak: negozioen lehiakortasuna hobetzea, pertsonen konpromisoa eta izaera kooperatiboa indartzea, negozio errentagarriak eta iraunkorrak dituen enpresa taldea izatea, balio erantsiko enplegua sortzeko bidean.

Oinarritzko jarduera ildoak

Helburu horren bila, kongresuak lau estrategia edo jardura ildo zehaztu ditu. Lehen, dimentsio-natzea eta nazioartekotzea, merkatu globalean neurri egoki eta lehia-

MCCk funtsezkoa den dokumentua onartu du aurtengo kongresuan. Bertan, korporazioaren lan ildo berriak zehazten ditu

korra aurkitzeko. Bigarrenik, berrikuntzak, sustapenarekin eta ezaguerarekin batera, negozio ereduak etengabe berritzea eta etorkizuna duten sektoreetan jarduerak sustatzea ahalbidetu behar du. Hirugarrena, interkooperazioa, elkarlana kooperatiben artean nahiz kanpoko aliatuekin, merkaturko aukerak hobetzeko eta irtenbide integralak nahiz balio erantsiko zerbitzuak eskaintzeko. Azkenik, laugarren lan ildoak konpromisoa eta identitate kooperatiboa bultzatzea da, ezaugarri kooperatiboak indartuz, eta ezaugarri horiek korporazioaren balioekin, printzipioekin eta kudeaketa ereduarekin bat datozen jarreraren bidez adieraziz.

Aldaketak eta egokitzapenak

Erronka honek taldearen enpresa politikan aldaketak eta egokitzapenak egitea eskatuko du, kooperatibistek erabaki bezala. Hala, negozioen neurria merkatu globalera egokitzeko eta goraka ari diren merkatuetara jotzeko asmoa dute; badira urte batzuk merkatu horietan lanean hasi zirela. Halaber, balizko itun estrategiko berriak lantzea eta hazkunde ahalmen txikiena duten jarduerak birbideratzea dute xede. Azkenik, proiektu integral korporatiboaren aldeko apustu garbia egin dute.

Hemendik aurrera, estrategia zehazteko balio duen politika hori onartuta, 2012ko kudeaketa planak giltzarri horietan oinarritu beharko du. Horrez gain, hurrengo urtean kooperatibek hausnarketa egin beharko dute, beren plan estrategikoak definitzeko eta 2013-2016 aldirako dagozkien kudeaketa planak lantzeko. ■



Francisco Fernández Rey
dialektologoa

«Galego bakarra egin genuen, leku guztietakoa, eta inongoa ez»

Santiago Compostelako Unibertsitateko katedradun eta Galiziako Hizkuntzaren Institutuko kide da. Galegoaren atlasaren lehen alea ondua zuen duela hogeitaka urte, Euskal Herrian gure hizkuntz atlasaren egitasmoa aurkeztu zuteneko. Harrezkero, joan-etorri franko egina da Galiziatik euskararen herrira, galegoaren dialektoez eta hizkuntza estandarraz gogoetan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Zertan da galegoaren dialektologia, zertan galego estandarra hizkuntzalaritzaren argitan?

Lehenengo, absentsia, horixe esan behar da... Hizkuntza galego-portugesara eratu zela bai, baina Erromanistika tradizionalak ez dio besterik. Hori esanik, Erromanistikak esan du esan behar zuen dena, haren argitan desagertu egiten da galegoaren historia. Arrazoi bila abiatu, esan dezagun, hasieran, garai batean, gure hizkuntzari buruzko oso lan gutxi zirela. Baziren Galiziatik kanpoko galegoaren gaineko ikerketak, Amado Alonso egindako lanak, batik bat. Horietan, Asturiasko galegoa, Leónko, Zamorakoa... aztertu zen. Monografiak ziren. Baina Galizia bertako galegoaren azterketarik ez zen!

Bigarren, Zamora Vicentek, iragan mendeko 40ko hamarkadan, lau monografia klasiko argitaratu zituen galegoaren lau fenomeno dialektalen inguruan —non gheada, seseoa, *moito/muito* banaketa eta beste aztertzen zituen—, eta kexu zen, kanpo lanik ez zegoelako egina, eta kanpo lanik ezean, topikoa zelako nagusi. Galegoa portugesearen



“Ez dugu dialektoen kontzientziarik, batasun handia du galegoak”.

dialektoa zela besterik ez zen entzuten bazterretan! Esan behar da hizkuntza galaiko-portugesetik bi hizkuntza landu sortu zirela: galegoa, batetik, eta portugesa, bestetik; antzekotasun handiekin sortu ere.

Esan behar den hirugarren gauza, galegoaren mugei dagokie-

na, muga lausoak dituela, hizkuntzetan ohi denez. Hor bada kasu aski bitxi bat, hizkera galaiko-portugesari dagokiona, Xalima ibar-raino sartzen baita. Hau da, Salamancatik Cáceresera bidean, badira hiru udalerri —Eljas, San Martín de Trevejo eta Valverde del Fresno—,

non hizketa bat duten, ez asturiera, ez portugesa dena... Izeberg bat da, galai-ko-portugesaren erakusgarria. Azalpena ere ez da zeharo bihurria: Galizia eta Leónko erreinuko jendeek birpopulatu zuten alderdi hura, Galizia eta Portugal bereizi ondoren. Errege Alfonso IX.ak -IX.a, Gaztelako historiografiaren arabera, baina VII.a Galizia eta Leónko erreinuaren historiografiari jarraiki-, birpopulatu zuen inguru hura, bere erresumako jendeekin. Bide-nabar, Santiagoko katedralean dago lurperatuta delako erregea...

Galegoaren "muga lausoak" esan duzu.

Zaila da-eta mugak zehaztea. Erraz antzean mugatu genezake euskara Araban, adibidez. Enrike Knörr zenak Aramaioko uda ikastaroetara gonbidatu ninduen duela urte batzuk. Harrigarri zitzaidan, Arabatik igarotzeko ohitura nuen, bertan geratzeko. Gasteiz alderdi honek Gaztelaren antza du nirekiko, eta Aramaiora heldu, aldiz, eta dena berde! Zuen kasuan, hizkuntzak -bateko euskara, besteko gaztelania-, guztiz diferenteak dira. Gurean ez da horrelakorik. Galegoak mugak, baina zeinekin? Partez, astur-leonesarekin, eta, partez, gaztelaniarekin... Hizkuntzak antz handikoak izanik, ez da erabateko mugarik, *continuum* bat baizik. Are, esaterako, *continuum* delako hori Galiziatik Italiaraino heltzen da. Amado Alonsok "erromaniko jarraikia" zioen. Jakina, orain, estatutak, autonomia erkidegoak, estatuturik gabeko herrialdeak eta gaine-rako abarrak ditugu, eta sintetizatu beharra dago nahitaez. Baina, berez, erromanikoaren munduan, *continuum* horixe da ezaugarri, prozesu gutxi-asko erregularra.

Galegoari dagokionean...

Horretara noa. Gurean, problema da iparraldean galegoak asturierarekin eta Leónko hizkerarekin muga egiten duela. Kantauri alde-rago, zailago dugu muga azpima-



Afixak hala dio: "Hezkuntza galegoz nahi dut".

rratzea. Badira bi udalerrri, bata Navia, eta bestea Villalón de Bajo, non zaila den muga zehaztea. Garai batean, Navia ibaia esanda konpontzen zen mugaren auzia alderdi hartan, muga historikoa nahi baduzu, baina guztiz horrela ez dena. Gogoan dut doktorego tesi bat, neuk zuzendu nuena, non Naviatik zazpi-zortzi bat kilometro hona egin eta galegoa hitz egiten

"1970eko hamarkadan lotu gintzaizkion buru-belarri batasunari. Ordu arte, hizkuntza loreak mendian bezala zegoen... eder, baina egituratu gabe"

zen. Esan nahi dut, badirela fenomeno fonetiko inportante batzuk, diptongazioa, bokal arteko galera... eta, horiek, galegoarenak dira. Bokal arteko galerak, bestalde, fenomeno fonetikoa izanik ere, morfologiari eragiten dio, hitzen pluralak era batekoak edo bestekoak izatea eragiten du-eta. Eta, eragin, galego estandararen ezaugarriak hedatuena gertatzeraino!

Hizkuntzalari ari naiz, eta besterik da jendeak, hiztunak, esaten edo uste duena. Baina, berez, fenomenook Kantauritik Ayamonteraino zabaltzen dira, Santo Antonioraino Portugalen. Horra muga, non galaiko-portugesaren mundua, astur-leonesarena eta gaztelaniarena bereizten diren.

Horra mugak, beraz.

Baina ezer ez da matematikoa. Badira beste gertakari batzuk, galego-portugesarenak, Leónen sartzen direnak. Beheranzko diptongoak, adibidez. Pidalek, hizketa leonesaren monografia klasikoa egiten duenean, hiru leones modu bereizten ditu, ei>ou beheranzko diptongazioari begira. Horren arabera bereizten du Pidalek Mendebaldeko leonesa. Hala ere, esan behar da

gertakari hori galaiko-portugesadugula, dudarik batere gabe. Eta mugak direla-eta, gure *chamar*, *chover* horiek, asturieraren barruraino sartzen dira... Alderantziz ere gertatzen da, alegia, astur-leonesaren gertakariak ere iritsi dira galegora, hau da, Galizia administratiboaren barru diren lurretan hitz egiten den galegora... Hori esanik, esan nahi nuen zaila dela hizkuntza mugatzen, baina mugatzea dagokigu. Jendearen kontzientziak ere laguntzen du horretan.

Galegoaren dialektologia ikertzen jardun duzu urte luzean. Zertan da dialekto ezberdintasuna?

Dialektologia ikertu dut, ez dugulako dialektoen kontzientziarik, batasun handia du galegoak. Guk ez dugu Bartzelonarik izan. Vigo, zer zen bada, duela hirurogei urte? Santiago, zer zen, bada? A Coruña, izatekotan, bazen, baina ez zen Bartzelonarik. Kontuan hartu behar da, bestalde, Espainiako leku despoblaturien herena Galizian dugula. Jendea hirira joan da, baina lehen, dispertsioa ikaragarria zen, gune nagusi bat falta izan zaigu, eta, hala ere, hizkuntzaren batasuna da azpimarragarriena, barietateak gorabehera. Gure galegoa, nahiko batuta



dago. Baditugu grafia gorabeherak oraindik, baina txikikeriak direla esango nuke, garrantzizkoena batuta dugula.

Nola liteke batasun hori?

Ez da kontu berria. XIX. mendean hasi zen batasuna, Rosalía de Castreorekin, Fondal-ekin, Manuel Curros-ekin... Lexikoa zein morfologia batzera jo zuten. Beste izen bat, sortzaile handia, Castela, prosa kultu modernoa landu zuena. Garai hartan –poesia nahiz prosa–, zientzia egiten zuten. Ahalegin handia egin zuten, bai Castelaok eta bai beste zenbait lagunek ere, hizkuntza lantzen, batasunera eramaten. Esaterako, portugesak lotura egin zuten, hipergailegismoa baztertu, lexiko popularra biziberritu zuten. Nekazaritza arloko hitzei bestelako dimentsio semantikoa eman zieten. Horretan, adibidez, maisu izan genuen Castela.

Galego estandarra arautzea berriagoa da, hala ere...

Bai. 1977an hainbat bilkura eratu zituen Galiziako Hizkuntzaren Institutuak, hots, Galegoaren Akademiak. Sei hilabetez gogoetan jardun zuten hainbat hizkuntzalarik, literatok, idazleak, eta galegoaren batasunaren oinarriak finkatu zituzten. Aldi berean, atlas linguis-

tikoa egiten hasteko urratsak egin zituzten. Niri dagokidanez, galegoaren eremu linguistikoa osoa ibili genuen hiru lagunek, eta, ondoren, mintegi formal eta informaletan aztertu genituen aurkitutako hizkuntz formak, eta erabakiak hartu ziren. Hortik etorri zen galegoaren aditz paradigma literarioa erabakitzea, adibidez. Atlas linguistikoa-ren lehen zirriborroak hizkuntzaren batasunaren handia erakutsi zigun. Ordu arteko galegoaren gramatikaren fotografia egiteko balio izan zigun.

“Euskararen atlasaren proiektua aurkeztu zenean lan patriotikoa ikusi nuen martxan. Han ziren, mahaian, Ardanza, Alli, eta are, lehenengo ilaran jarrita, Arzalluz eta Patxi Zabaleta”

Batasuna egina da, hortaz.

Kontu horiek ez dira inoiz bukatzen. Italian, duela 500 urte hasi ziren batasuna planteatzen, eta ordutik hona ez dira isildu. Italian *De vulgari eloquentia*arekin hasi zuen batasun prozesua Dantek XIII.

mendearen amaieran. Poeta handia *Divina Comedia* egiten hasi zenean, gogoeta egin zuen, italiaren inguruan, estandarren bila... Esan dudanez, gu 70eko hamarkadan lotu gintzaizkion buru-belarri batasunari. Ordu arte, hizkuntza loreak mendian bezala zegoen... eder, baina egituratu gabe, aurreko mendeetako idazleek ahalegina egin zuten arren. Atlas eginez, ordu arteko panorama erakutsi genuen, tradizio literarioa bildu, galego arrunta azalera ekarri... Hizkuntza bat egin genuen, estandarra, leku guztietakoa, eta inongoa ez, noiz Mendebaldeko Galiziakoa, noiz Ekialdekoa. 1990ean argitaratu zen Atlas Linguistikoa-ren lehen alea, aditz morfologiari buruzkoa, nire tesia izana. Handik bost urtera, bigarren alea etorri zen, izen morfologiaren gainekoa. 2005ean bosgarren alea atera zen eta hamaikahamabi ale aurreikusiak ditugu, galegoaren arlo lexiko osoa biltzeko bidean, ahozketasuna eta tradizio literarioa batera. Orain abian gara, gauza asko ari gara egiten. Duela hogeita hamar urte, aldiz, oso gutxi genuen egina...

Euskal Herrian izan zinen garai hartan, atlas linguistikoa zela eta ez zela...

Atlasa asmatzen hasi ziren hemen, eta bertara etorri nintzen. Zinez liluratu ninduen hemen ikusi nuenak. 1990-1991 izango zen, eta guk han atlasaren lehen alea argitaratua genuen, oso sostengu txikiarekin, ez politikariek ez nazionalistek lagundu zuten askorik. Hona etorri, euskararen atlasaren abiatzea, proiektuaren aurkezpena, eta lan patriotiko bat ikusi nuen martxan. Han ziren, mahaian, Ardanza EAEko lehendakaria, Alli, Nafarroako burua, eta, are, lehenengo ilaran jarrita, Arzalluz eta Patxi Zabaleta, askoren artean. Zabaleta, jakina da, euskaltzain osoa zen ordurako. Horixe pentsatu nuen neure kautan: “Hemen dira denak! Aberri asmoa dute, inondik ere! Gurea ere aberri asmoa da, Xuntaren laguntza izan du argitaratzeko, bai, baina hau beste mundu bat da. Badakite zer nahi duten!” Nik Herri proiektu bat ikusi nuen

hemengo aurkezpen hartan. Lehen mailako politikariak ikusi nituen proiektua bultzatzen. Arzalluz eta Ardanza, eta Alli, eta euskaltzainak. Patxi Zabaleta, Herri Batasunakoa orduan. Herri Batasunakoa, euskaltzaina... Gure Akademiari begira galdetzen nuen: "Noiz sartuko da Méndez Ferrín galegoaren Institutuan?" Ni 1999an sartu nintzen... eta, nire ondotik, Méndez Ferrín. Neuk egin nuen horretarako behar zen paper-lan guztia... Orain, berriz, Institutuko buru duzu Ferrín!

Galegoaren Institutu edo Akademiaren zuzendaritzako kide zara. Zertan zarete?

Ohiko bilerak ez ezik, duela urtebetetik hona, zuzendaritzan gaudenetik –Xose Luis Méndez Ferrín idazlea Akademiako presidente dela–, oker makur bat zuzentzen ahalegindu gara. Akademiak ez du euskaldun eta katalanen neurri bera jaso izan, eta zer esanik ez, Espainolaren Akademiak jaso duen parekorik. Euskaltzaindiak diru kopuru jakin bat jasotzen du estatuaren aurrekontutik, milioi bat euro, gutxi gorabehera. Eta euskal erakunderen batek edo beste ere diruz laguntzen du. Katalunian, Katalan Ikasketen Institutuak ere, milioi bat euro jasotzen du iturri hartatik. Espainolaren Akademiak, lau milioi jasotzen ditu. Gureak, Galegoaren Akademiak, ez du sosik jaso izan estatua-
ren aurrekontutik. Kultura Ministerioaren mende egon dira akademiak duela gutxi arte, eta biltzen genuen diruak proiektu jakin bat izan ohi zuen helburu. Ahalegin handia egin behar izaten genuen dirua batzeko, ez zegoen luzaro begirako egitasmorik lantzerik. Galiziako Xuntak, gutxieneko bat ematen zion Akademiari, 50.000-60.000 euro, zenbait ekital-

di antolatzeko eta, bestalde, Kultura Kontseilaritzak, eta Hizkuntza Politikarakoak, oso helburu jakinetarako baino ez zuten dirua ematen. A Coruña-ko Diputazioak ere, 30.000 euro eman ohi zituen... Alegia, handik eta hemendik dirua batuta ere, arrunt diru guti, lan handiak egin nahi izatekotan. Ezin ezer asmatu. Eskean joaten zen denbora.

"Euskaltzaindiak diru kopuru jakin bat jasotzen du estatuaren aurrekontutik, milioi bat euro, gutxi gorabehera. Galegoaren Akademiak, ia gaur arte, ez du sosik jaso izan estatuaren aurrekontutik"

Aurrera baino lehen, zergatik Euskararen eta Katalanaren Akademiak Espainiako Ministerioaren dirua bai, Galegoaren Akademiak, aldiz, ez?

Hemen inork ez du ezer opari ematen. Euskaldun eta katalanek Madrilen pisu espezifiko handia duzue; guk ez duguna, alegia. Guk baditugu diputatuak Madrilen, bai, baina gureak, PPko eta PSOEko diputatu galiziarrek, alderdi nagusi bi horien sostengatzaile dira, ez besterik. Duela urtebete, zuzendaritza berri-
tu genuenean, horixe egin genuen lehenengo, oker hori zuzentzen saiatu. Orain erritmoa mantsotuta gabilta, baina hasierako hura zer izan zen, bada! Frenetikoa! Erakundeetara jo, egoera azaldu, ezberdintasun hori konpondu beharra zegoela erakutsi... Espainiako Gobernuak Galizian duen ordezkariarekin mintzatu ginen, alderdi politikoe-
kin, diputa-

zioetako presidenteekin... Denek ezagutzen dute Méndez Ferrín, idazlea, eta lan instituzional ikargarria egiten ari da, joko-
z kanpo utzi du mundu oro. Bere burua presidentetzarako aurkeztu zue-
nean esan zuen: "Niretzat inportantea da Akademia hedabideetan ez azaltzea, lan egin dezan erraztu behar dugu, isilik lan egin, gramatika egiteko, hiztegia lantzeko..." Eta, egia esan, horretan ari gara, lanean, isilik.

Ezberdintasuna konpondu...

Konpondu beharra zegoen! Erabateko gabezia ginen. Espainiako Gobernuak ohiz kanpoko laguntzak eman behar izan zituen egoeraren larria gozatzeko. Ezberdintasuna alimalekoa zen, eta erakundeei halaxe azaldu zitzaizkien. "Galiziak diru ekarpena egiten dio estatuari, eta, ordainetan, Akademian ez dugu dirurik jasotzen. Aldiz, euskaldun eta katalanek bai". Injustizia galanta zitzaigun. Hori, behintzat, zuzendu genuen, eta iazko aurrekontuetan 200.000 euroko diru partida agindu ziguten. Zenbait emendakinen bitartez, berriz, eta BNG, PP eta PSOEko diputatu galegoen bitartez, 800.000 euro arte jaso zuten diru hura. Milioi bat euro jasotzen dugu orain. Beraz, zenbait egitasmo egiten, arnasa hartzen has gitezke.

Dialektologoa, administrazio lanean...

Barrutik bizi dut orain. Lehen, inoren ordezkari joan ohi nintzen Akademiaren bilkuretara, eta kanpotik ikusten nuen egoera. Baina zeharo bestela da barrutik bizitzea. Méndez Ferrínen lana, berriz, bikaina da. Bere asmo politikoari zipitzik ere uko egin gabe, lan orbangabea egiten ari da Akademiako presidente. Ez du aitzakiarik. ■



Babeslea: EHU/UPV

AMETS BATEN OINORDEKO GARA

UNIVERSIDAD VAICA EUZKO IRAKAITOLA NAGUSIA

1936

www.ehu.es/ametsbatenoiordekokogara

TALAIAN

**Murrizketak,
fiskalitatea eta enplegua**

Euskal Herrian, Espainian eta Frantzia modako hitza da “murrizketa sozialak”, baina batzuek beste modu batez leundu nahi dute, “doikuntzak” deituz. Larriena da murrizketa gehientsuenak hauteskunde ondoan iragarri direla Hego Euskal Herrian eta Espainian, ordura arte hautesleei asmo horiek ezkutatu. Amarru demokratikoa da. Kataluniako Gobernuak egin zuen, Patxi Lópezen Gobernuak egin du eta Nafarroako, Espainiako, Frantziako eta Europako gobernuek ere egingo dute. Denak belaunikatzen dira merkatu famatuaren aurrean, eta hautesleentzietatik igaro ez diren horiei uzten diete herri edo estatu bakoitzeko politika zuzentzen. Murrizketak handik eta hemendik, merkatuei ordaintzea bermatzeko.

Lópezen Gobernuak “100 milioi euroko aurrezpena langile gastuetan” iragarri du. Horrek esan nahi du, sindikatuak salatu moduan, lan eskubideen galera ekarriko duela eta krisi honetan ardurarik ez dutenei eragingo dietela murrizketek. Lanpostuak sortzea beharrezkoa denean, Administrazioak kate-maila ahulenean erabiliko ditu guraizeak, langileenean alegia. Eta ahaztu zaizkio enplegua sortzeko benetako gakoak: aberatsenak gehiago ordaintzea; enpresa etekinei zergak igotzea; gastu militarrik albo batera uztea; eta Hego Euskal Herrian dagoen iruzur fiskal milioioiduna azaleratzea —urtean 13.000 milioi euro baino gehiago—. Foru Aldundiek formula eraginkorrek bilatu beharko lituzkete azken honetarako, bide hori jorratzeko interes askorik ez dagoela dirudien arren. Horrela enplegua sortu liteke, eskubide sozialak mantendu eta diru-sarrera fiskal gehiago lortu zorra ordaintzeko. Lópezek, langileei murriztu beharrean, eredu izan beharko luke, eta bere soldatari eta bizi osorako pentsioari uko egin. Gainerako agintari, politikari, diputatu eta senatariek berdin egin beharko lukete.



Juan Mari Arregi

Baionako brigada

BEA SALLABERRYK eman digu ekimen honen berri. Baionako erdigunean, merkatuan, larunbat goizetan erosketak egiteko ohitura duten lagun batzuk elkar-tu dira. Hamar bat lagun dira, Sallaberryk adierazi digunez, batzuk euskara ikasten ari dira, beste batzuk aspaldi ikasi zuten eta euskalgintzako batzuk ere badira. Oraingoz helburua xumea eta zehatza da: beti bezala merkatura joango dira erosketak egitera, baina elkarren babesean euskaraz egingo dute ahal duten guztietan. Horrela, euskaraz egiteko gai diren saltzaileak identifikatuko dituzte. Oraingoz horretan hasiko dira, nahiz eta bestelako ekintzak bururatu zaizkien, hala nola, euskaraz ari diren saltokiak zerrendatzea, euskaraz ari ez direnei euskararen beharra azpimarratzea eta abar.

Filmazpit

EUSKO JAURLARITZAK euskarazko azpitoluak dituzten filmen katalogoa osatu nahi du batetik, eta bestetik, datu basea. Biei buruzko informazioa www.filmazpit.eu-en jaso du. Jaurlaritzak kultur programatzaileak, euskaltegiak, udalak eta zineklubak ditu gogoan, besteak beste. Eragile horiek, programatu nahiko lituzketen filmak eskatuko dizkio-te Jaurlaritzari eta honek jatorrizko bertsioan dau-den pelikulei azpitoluak jarri eta filmak itzuliko dizkiete. Egile eskubideak Jaurlaritzak kudeatuko ditu eta eragileek doan eskaini beharko dituzte filmak. Katalogoa batetik, eta datu basea bestetik. Euskal Herriko hainbat zinemalditan jada filmak euskaraz azpitolatuta dituzte. Jaurlaritzak horiek denak datu-basean bilduko ditu. Horiek erabiltze-ko ordea, egile eskubideak filmen jabeekin nego-ziatu beharko dira.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

**Atxaspi Hotela**

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Bankuen zorrekin lotzen dute Rajoy

MARIANO RAJOY jauna bere bunke-
rrean dago, egoerari nola aurre egingo ei-
dion aztertzen, eta lehen urratsak sendo
emateko prest. Ez du oraino ezer iraga-
rri, baina badakigu zer dakarren: aurre-
kontuen herstrukturaren norabidean, Rajoyk
bata bestearen atzean beteko ditu Euro-
pako Banku Zentralak eta Alemaniak
aholkatutako irizpide eta neurriak, "mer-
katuek" diotena alegia. Aurretik PSOEk
eta Jose Luis Rodríguez Zapaterok egin
duten gauza bera. Hau da, Europako
sozialdemokraziak Grezian, Portugalen
edo beste hainbat herrialdetan egin
duena. "Ez baitago krisi ekonomikotik
ateratzeko beste biderik, gastu publikoa
murriztea, zorra ordaindu ahal izateko
eta merkatuek ez gaitzaten zigortu", dio
doktrina neoliberalak.

Baina zergatik murriztu behar da
gastu publikoa, Espainiaren zor publi-
koa Europako Batasuneko txikieneta-
koa denean? BPGaren %60,1 da Espai-
niako zor publikoa, Frantziakoa %82,
Alemaniakoa %83 eta Italiakoa %119,
adibidez). Zergatik herritarren bizi mail-
an eragin itzela duten murrizketak, zor
publikoaren handitzea ez datorrenean
gastuaren gehitzetik diru sarrearen
gutxizetik baino?

Erantzuna Espainiako zor pribatu-
dago eta hau bai da Europako handiene-
takoa. Zorpetze maila handiak arazoak
dakartzio edonori, baina areago egoera
horretan krisi ekonomikoak harrapatzen
badu. Baina, gainera, egoera biziki larri-
tzen da, finantza merkatuen aurrean
Espainiako Gobernuak zor horiek ordain-

duko diren bermea beregatzatzen badu,
horrela finantza merkatu horien zigorra
saihestuko duelakoan. Bistan da ez
duela lortzen.

Irakurleak askotan irakurriko zuen
zein zorpetuta dauden Espainiako fami-
liak eta hala da. Baina zor pribatuaren
zati bat besterik ez da hori, eta ez han-
diena. Horrela banatzen da Espainiak
guztira duen zorra (4,25 milioi euro):
700.000 milioi euro publikoa; familia-
bilioi bat baino gutxiago; enpresena
1,3 bilioi; eta bankuena 1,35 bilioi
(baxuenetik jota).

Orduan, familia batek arazoak baditu
eta hipotekatutako etxea galtzen badu,
hori arazo handia da —esaten da—, baina
familia hori ez zen behar beste ardura-
tsua izan bere garaian eta orain ondorio-
ak jasan behar ditu —gaineratzen da—.
Espainiako Gobernuak ez da horretan sar-
tuko, ez bada legea betearazi eta familia
etxe horretatik kanporatzeko.

BANKUEKIN guztiz kontrakoa da, fami-
liak baino askoz zor handiagoa dute
Espainian, baina Gobernuak jarriko du
100.000 milioi euroko fondo bat aurrezki
kutxen zorrak kitatu eta hauek egoera
osasuntsuan jartzeko. Baina are eta
larriagoa, zor horren zati handi bat atze-
rriko bankuekin denez (nagusiki frantse-
sak, alemanak eta estatubatuarrek),
Gobernuak adierazi nahi die Espainiako
kutxa eta bankuek beteko dutela beren
ordainketa, eta Gobernuak bera dela
horren berme. Eta hortik dator aurrekon-
tuetako murrizketa itzelen arazoa, ez zor

publikotik, zor pribatutik eta batez ere
enpresa handi eta bankuen zorretatik.

Azken finean, doktrina neoliberalak
azaltzen du ezin direla zorretan diren
herritarrak zuzenean erreskatatu, erres-
kate hori ekonomiaren hazkundeak eka-
rriko duela, enpleguaren sorrerak... Ban-
kuak erreskatatzea, ordea, ezinbestekoa
da, hauen maileguak pertsonarentzat
odola bezalakoak direlako ekonomiaren-
tzat, eta hauek ondoratuz gero ekono-
mia ondoratuko litzatekeelako.

Ez dago irtenbiderik eskema horretan:
azken hiru hamarkadetakoa desaratzea-
ren ondorioz, finantza munduak ia nahi
duena egin izan du eta horrek ekarri zuen
2007ko finantza krisia. Burbuilak sortu,
gutxi batzuk ikaragarri aberastu eta,
errealitate ekonomikoari erantzuten ez
dieten burbuilak direnez, hauek eztanda
egitean krisi itzela eragiten dute. Horre-
gatik, 2007ko krisiaren ondoren, gober-
nuek esan zuten ezinbestekoa zela finan-
tza mundua arautzea. Baina jai, ez da
ezertxo ere egin eta "merkatuek" agin-
tzen jarraitzen dute, eta nola gainera.

Ez al da, beraz, alternatibarik Rajoyren
bulegoan gertatzen ari denari? Bai, bal-
din eta herritarrak eta ez finantza merka-
tuak jartzen badira konponbidearen erdi-
gunean. Egongo da, baldin eta herritarrok,
bakoitzak berean eta batez ere multzoan,
bilatzen baditugu. Ezetz esatea da lehen
urratsa. Gero, apurka, bes-
telako urratsak ematea, zergekin Gipuzkoako Dipu-
tazioan egiten ari diren
bezala, adibidez.




Brasillrunen
Colon, 62 IRUN Tel. Fax. 943. 61 50 79




LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

What do you
think's best?

**Zuretzat Zure iritziz,
zein da hobia?**

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
INGESEA | EUSKARA | GAZTELANIA | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com

PELLO ZUBIRIA

Gardasil - Cervarix: neskatoei eztabaida zor zaie

‘Uteroko minbiziaren kontrako txertoa’ deitu arren, beste zerbaite da: kantzer mota hori –eta ez beti– eragin dezakeen birusaren askazietako batzuen kontrakoa da. Gardasil eta Cervarix markekin masiboki merkaturatua, haren alboko kalteen albisteak ugaritu ahala pizten da txertoaren onuren eta kostearen arteko egokitasunaz eztabaidatu beharra.

GURE ALABEN TXERTATZE MASIBOA onargarria dela? Horra Ainara Arratibel kazetariak *Berria* egunkarian plazaratutako bi artikuluk sortarazten duten galdera. Uteroko lepoko minbiziaren txertoaz aritu da Arratibel. Lehenean –“Alabaren gaixoaldiak txertoarekin lotura du”– Oiarzungo (Gipuzkoa) Ixone Suarezzen 12 urteko alabaren kasua kontatu du, zeinak txertoa jarritz geroztik zorbioak, buruko mina, arnasa hartzeko arazoak, bularreko herstura eta sukar altuak izan baititu.

Bigarrenean –“Auzitan segitzen duen txertoa” eta “Medikuek ez digute frogatu txertoagatik izan ez denik” izenburupean egunkariaren bi orri hartzen dituelarik– susmagarriak identifikatu ditu, Cervarix eta Gardasil txertoak, eta beste bi kalteuren bizipenak bildu, Karmentxu Oraa nafarraren eta Nagore Campos bizkaitarrarenak. Horien aldamenean, bi medikuren iritzi kualifikatuak: Donostiako Ospitalean ginekologoa den Mikel Gorostidi txerto horien aldekoa da eta kontrakoa, berriz, Koldo Martinez mediku iruinesez eguna.

Euskal Herrian hasi ere ez da egin txerto bitxi honi buruzko eztabaida, Europan eta AEBetan aspalditik polemikoa dena. Joan den abuztuan bertan Belgikan zabaldu da herri inizatiba bat han txerto

hau eskolatutako neskato guztiei doan eskaintzeko agintariek azaldu duten asmoaren kontra. *Iniciative Citoyennes*en agirian beste hainbat argudioaren artean esaten da AEBetan Gardasil eta Cervarixi egotzi zaizkiela 22.194 alboko kalte eta 97 heriotz.

Norbera gaixo egotea bezalakorik ez da ohartzeko alarmismo merkeek ez dutela kaltea baizik eragiten. Baina egia da ere diru publikoak ordainduta era masiboan kontsumitzen diren botiken inguruan farmaziako multinazionalak informazioa ezkututzen dutela. Urrutirago joan gabe, Gardasil saltzen duen Merck multinazionalak luzaz saldu du Vioxx antiinflamatorio famatua, harik eta debekatu zuten arte; baina debekua baino askoz lehenagotik ari ziren aditu asko alarma pizten haren kalte larriengatik.

Giza papilomaren birusaren (GPB) kontrako txertoaz ingelesezko Wikipedian galdetzen baduzu, informazio ofiziala baizik ez duzu aurkituko eta beste sarrera askotan hain argigarria den *controversy* (eztabaida) atalak honetan bakunen kontrako eztabaida orokorrera eraman-go zaitu. Frantsesezko Wikipedian hori ere ez; Hexagonoan medikuen erakunde ofizialak ortodoxia zorrotz zaintzen du. Aldiz, zorioenez, informazio gehiago lortuko

Belgikako *Iniciative Citoyennes*en blogetik hartutako argazkiak erakusten du Gardasil txertoa hartu duen neska gaztetxo bat, promozioko irudian. Txertoa harreman sexualetan hasi baino goizago hiru aldiz hartzea gomendatzen diete osasun agintariek. Euskal Herrian talde feminista batzuk aurka azaldu ziren 2008an. Gardasil Merck & Co. (MSD) multinazionalaren produktua da eta Giza Papilomaren Birusaren 6, 11, 16 eta 18 moten kontrako eragina dauka. Konkurrentzia egiten dion Cervarixek aldarrikatzen du 16 eta 18 moten aurkako eragina eta GlaxoSmithKline (GSK) korporazioak ekoizten du. Gardasilek 2006an merkaturatu bezain pronto sekulako etekinak eman zizkion korporazioari, baina geroztik bai krisi ekonomikoak jendearen botikatarako dirua urritu duelako eta bai txertoaren kontra zabaldu diren informazioagatik salmentak makaltzen ikusi ditu.

duzu gaztelaniazko Wikipedian. Ziurrenik 2007an, txerto hau Espainian zabaltzen hasi orduko, Carlos Alvarez-Dardet katedratikoak beste dozena erdi pertsonalitatekin artikulua argigarri hau plazaratu zuelako *El País* egunkarian: *Razones para no decidir con prisas*.

Minbizi bat, 8 milioi euro

Alvarez-Dardetek 2007an idatzizuen Gardasil eta Cervarixi masiboki zabaltzearen kostuez: “Utero lepoko lehenbiziko minbiziak prebenitzen hasterako, 30 urte barru gutxienez, Espainiako osasun sistemak 4.000 milioi euro izango ditu gastatuak. Beraz, kantzer horietako bakar bat saihestea sistemari 8 milioi euro koskatu izango zaio, horrekin euro bakar bat aurreztu gabe gaur detekzio goiztiarra egiteko erabiltzen diren zitologia eta tratamenduetan, zeren eta txertatutakoei ere gomendatzen baitzaie frog horiek egiten jarraitzea”.

Baina gehiegizko kostua –eta 8 milioi bada gehiegizkoa– alde batera utzita, are argudio latzagoa aurkeztu zuten Alvarez-Dardet eta kolegek: ez dago txertoan eraginkortasunaren ebidentzia zientifikorik. Artikulu hartan agertu zituzten sintetizatutik lau urte beranduago eztabaidan segitzen duten kontrako argudio nagusiak. Txertoak ez dira



askoz lehenagotik jorratua dute *Pharmacritique* gune frantsesezkoak eta *Arznei-Telegram* aldizkari alemanak.

*Pharmacritique*ek 2009an ezaguturazi zuen urte hartako irailean Ingalaterran neskato bat hil zela txertoaren ondorioz. *The Times* egunkariako albisteak itzuliz zioen Britainia Handian ordura arte Cervarix hartu ondoren 4.657 alboko kalte notifikatu zirela ofizialki, nagusiki erreakzio alergikoak, zorabioak eta gora-galeak. 2007an gertatutako *Guillain Barré* sindrome kasu batean ere susmagarria zen txertoa.

Austriako beste neska baten heriotza izan da susmagarria Cervarix txertoa. Bat gehiago Alemanian. Eskozian *The Scotsman* egunkariak 150 neskato baino gehiagok ondoezak jasan zituztela azaldu zuen, hiruk larriak, nabarmenduz ohetik jaiki ezin izateko adinako nekea sortu zion 13 urteko baten kasua, zeinaren amak lana utzi behar izan zuen alaba artatzeko.

Urte bete lehenago, 2008an, *Arznei-Telegrammek* ohartara zuen Gardasil eta Cervarixen ekoizleek informazio garrantzizkoak ezkutuan zeuzkatela, eta horien alboko kalteak aitortuak baino askoz ugariagoak zirela: handitsu eta gorrituak, buruko minak, mialgiak, artalgiak, hestetako egonezinak, sukarra... eta horien artean bazirela kalte larriago batzuk, eritasun kroniko edo autoimmuneekin lotuak. Azkenean, galdera nagusi hau gertatzen da: arriskuok hartzea justifikatzen du txertoak benetan duen eraginkortasunak? ■



eraginkorrak borrokatu nahi dituzten birusen askazi guztien kontra. Multinazionalak froga kliniko laburregiak egin zituzten. Txertoa ipintzetik kantzer hipotetikoak azaldu arteko epea hain luzea denez, ez da oraindik garbi tartean txerto gehiagor jarri beharko diren. Eta abar.

Hala ere bere bidea egin du minbiziaren kontrako txertoa omen den honek. Omen, diogu, ez baita. Txertoa aipatu birusaren kontrakoa da. Birusa denez minbizi hau sortzen duten eragileetako bat, horren zabaltzeko bidea harreman sexualak direnez, neskatoei ezartzen zaie txertoa balizko birus horiek urte asko beranduago kantzerra eragin ez diezaieten. Justifikazio bihurri samarra, egia esan.


Gainera, nahiz eta froga klinikoak nerabezaroa gainditutako emakume gazteekin egin, txertaketen adina beheititzen joan da, 12 urtera, bederatzi urteko umeetara ere bai zenbait lekutan. Eta orain, antza, mutikoei hedatzea ere proposatzen hasi dira. Duela bost urteko kritikak alarmistak ote ziren? Alvarez-Dardetek-eta orduan eskatzen zituzten eztabaida eta moratoria soberan al zeuden?

Euskal Herrian lehenbiziko kexuak orain entzun diren moduan, Europan ez dira isildu urteotan. 2011ko abuztuan ikusi dira mugimenduak Belgikan. *Initiative Citoyennere*n gunean irakur eta entzun-ikus daitezke frantsesez haien eskakizunak. Baina gaia



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Euroa: irabazleak eta herritarrok

Europar Batasuneko (EB) tratatuek bertako hiritarren ongizatea bermatzea eta garatzea aitortzen dituzte abiapuntuko helburu nagusi bezala.

Inondik ere, ideia hau erakargarria egiten zen eta hasiera batean horrela sinesten genuen, are gehiago Francoren dikta-
durapetik irten berriak izan ondoren.

Alabaina, zenbait zalantza sortu zitzaizkigun 1991n Maastrichteko Ituna onetsi zenean. Izan ere, moneta bakarrera heltzeko, eurora, sakrifizio gogorrek eskatzen zitzaizkigun. Hori dela eta, Felipe Gonzálezen gobernu sozialdemokrata berehalako gizarte erreformak burutzen hasi zen eta ondorioz, pentsioak, langabezi laguntzak eta beste hainbat gizarte babes murriztuko ziren. Gerora, jabetza publikoekin sartu ziren eta estatua deskapitalizatzeari ekin zioten: Telefonica, Campsa, Tabacalera... Espainiar herritarrek urtetan metatu zuten kapitala, baldintza oso erosoe-
tan, saldu zitzaion espainiar oligarkiari.

Ezin dugu ahaztu EBk aukerak eta diru ugari eman zizkiola Espainiako Gobernuari bazterrak zementuz estaltzeko, ez ordea enpresak garatzeko edo industria erakargarriak sustatzeko, hots, garapen endogenoa indartzeko. Hori guztia merkatu librean bideratu behar zuen, laguntza publikorik gabe.

Euroan sartzeko betikoei gerrikoa estutzea eskatu zitzaion eta orain gauza bera euroarekin jarraitzeko. Bien bitartean, munduko marrazoak gure gain dirutza egiten ari dira. Historiak esaten digu Depresio Handiaren garaian (1929-33), errudun ugari beren buruaz beste egin zutela, aldiz, oraingo krisiaren arduradunak sarituak izaten ari dira: Draghi Europako Banku Zentraleko buru, Monti eta Papademos Italia eta Greziako lehen ministroak. Guztiok Golman Sacheko goi agintariak ziren eta uzkurraldi honen erantzuleak. Gainera, irizpide demokratiko guztien aurka hautatuak izan dira.

Bestalde, oroitu behar dugu, denboralditxo batean ilusio ekonomikoz bizi izan gara. Izan ere, aurreko hamarkadan kontsumo



MADDI SOROA

maila eutsi ahal izan zen. Nola? Mailegu merkeen bidez kontsumitzen jarraitzea erraza izan da, nahiz soldaten balio errealek, nabarmen, behera egin zuten.

Eta orain zer? Estatuak zorpetuta daude eta beraien azken urteetako aurrekontuak sarrera publikoak etengabe gorantz joango zirelakoan eratzten ziren eta sarrerak hazteko joera hori eten denean, konpentsatzeko, zor publikoa jaulkitzera jo dute, zor horrek dakartzan ondorioekin: adibidez Italiak bere BPGren %5 erabili beharko du bakarrik urteko interesak ordaintzeko! Espainiaren azken jaulkipena 3.500 milioikoa izan da eta ondorioz kopuru horrengatik, bakarrik, urtean 250 milioi euro ordaindu beharko ditu.

Bestalde, Europako agintariek eta gobernuek lehentasuna ematen diote interesen ordaintetari eta horretarako sarrera publikoak handitu ordez, gizarte gastuak murriztuko dituzte, herritar ahulenen gain eraginez. Finantza erakundeek ez dute gupidarik EBko estatuen zor publikoekin jolasean aritzeko, espekulatzen, itolarrian dagoena, gehienetan, prest baitago interes altuak ordaintzeko.

Egoera larria izanda ere, finantzari hauek ziur dira interesak eta kapitala ere eskuratuko dituztela, atzean, berme gisa, Alemania, Herbehereak, Luxenburgo eta abar daudelako. Eta okerrago dena, finantza erakunde horietakoak diru publikoarekin lagunduak izan ziren eta orain diru hori erabiltzen ari dira herritarren ongizatearen aurka joateko. Hala-ber, ez litzateke harritzekoa izango, titulu horiek pakete egin ostean, merkatuetan kolokatuko

diren, diru gehiago eskuratu eta estatuei, berrito, maileguetan uzteko. Jokaldi borobila!


Azken galdera: euroa gai izango al da egoe-
ra honetatik bizirik irteteko? Zaila da erantzutea, baina ez litzateke harritagarria izango edozein egunetan “corralito”ren batekin esnatzea eta guk aurreztutako diruak hutsaren hurrengo kanbio tasa batekin aldatu behar izatea. Orduan ere, marrazoak garaile. Baina, oraingoz, ez gaitezen urrutiegi joan. ■



« Ezin dugu ahaztu EBk aukerak eta diru ugari eman zizkiola Espainiako Gobernuari bazterrak zementuz estaltzeko, ez ordea enpresak garatzeko edo industria erakargarriak sustatzeko »

ASTE HONETAKO

zozketa



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3



Telezailak

Nork esan zuen telebistak
tontotu egiten duela?

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Gartxot

2 liburu opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2299. Argia)

ANDRA MARI jatetxea

- Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza (Donostia)

EKAINBERRI

- Jesus Lazkanoiturburu Arregi (Legazpi)
- Xabier Zendoia Aizpurua (Zumaia)
- Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Jose Ramon Egiluz Ugarriza (Berriatua)
- Joxe Mari Ibarburu Arotzena (Donostia)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)

MARKOS UNZETA "Mississippi"

- Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea (Markina-Xemein)
- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- Arturo Kanpion Kultur Elkarte (Iruñea)
- Mila Apezetxea Loiarde (Hernani)
- Karlos Ibarburen Olalde (Oñate)

EGUTEGIA 2012

- Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)
- Oresako Udal Liburutegia (Orexa)
- German Kortabarria Igartua (Getxo)
- Begoña Munduate Aierdi (Ataun)
- Jabier Altzorritz Lardies (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



%100 arte finantzatutako erosketa:

Sabadell Guipuzcoano



Laster Errotaritxuenan bizi ahal izango zara

Lanak martxan daude



Erakitzten ari garen promozioa. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/88 E.D.ari eskatzen den eta publikitate honen barruan agertzen den informazio guztia interesatuen esku dago merkatatza-bulegoetan.

FINANTZAZIO BALDINTZA APARTAK

2 logelako etxebizitza
194.000€ -tik aurrera
(+ BEZ)

www.sukia.com
www.solvía.es

 **sukia**
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41